



PATRI URKIZU

JOAN SEBASTIAN ELKANO

*PRIMUS CIRCUMDEDISTI ME*

Azala: Elias Salaberria (Lezo 1883-Madrid 1952), *Desembarco de Elcano, 1922*. (Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza. Donostia)



Ignazio Zuloaga (Eibar 1970 – Madrid 1945), *Juan Sebastián Elcano*. 1922. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregia. Donostia.



θάλασσα κλύζει πάντα τάνθρωπων κακά  
Itsasoak gizonen krimen guztiak garbitzen ditu.

Euripide, *Ifigenia Tauriden* (414 K. a.)



## I

### IN NOMINE DEI PATRIS, AMEN.

— Hi, Urdaneta, hator hona.

— Bai, Almirante jauna, berorren aginduak betetzeko prest naduka beti.

— Hartzak luma, tintontzia, liburu zuri bat eta eskribezak.

— Prest natxio.

— Ea bada. Nire bizitzaren oroitzapenak kontatu nahi dizkiat eta idatzita utzi.

*Sancti Spiritus* galeoiaren popaldeko gazteluan, santasantorumeko gelan ongi tenkatu zur bernizatuzko mahai batera eseri zen liburu zuria, tintontzia eta lumarekin berehala berrogei urteko kapitainaren aurrean eskribau gaztea. *El estrecho de Magallanes*, deituko zuten hertsiduran, ekaitz haserretuak maltratatu eta ia hondoratu ostean, babesleku zen

badia zabal batean zeuntzan muilatuak zundak ematen zuen hamar brasetan, aingurak jaurtikita, segurtasunaren esperantzan mendi garai zurizatuez inguratuak.

...

**N**I Joan Sebastian Elkano, Getarian jaio nintzen mila laurehun eta laurogeita zazpian, San Sebastian goizean noiz ere baitzituen hogeituro urtarrilak. Nire gurasoak, Domingo Sebastian Elkano eta Katalina Portu deitzen ziren eta amaren aitaren, aitona Joanesen eta aitaren izenez bataiatu ninduen osaba Martin bikarioak *San Salvador* elizako pontean.

Etxeko bigarrena nintzen. Aurrena Sebastian zen, ni baino urte bat zaharragoa eta Domingo Arronaren faktore bezala itsasoetan barrena ere ibili dena. Nire ondotik sei anai-arreba erditu zituen ama Katalinak: Domingo, osaba ordezkatzuz denboraren poderioz Getariako apaiz eta bikario izango zena, Martin ni bezala zorrak egiten abila eta *Sancti Spiritus*-eko pilotu dena, Anton *Santa Maria del Parral* itsasontziko maisua, Juan *Santiago* patatxean doana kontramaisu, Otxoa gazterik hil zitzaiguna, Katalina Sebastiana Rodrigo Gainzarekin ezkondua, Ines Santiago Gebara *Santiago* patatxean kapitain datorrenaren emaztea, eta Maria, etxeko lanetan ama laguntzen ibiltzen zen lehengusu txiki gazte pollit batekin aitak izandako alaba naturalea.



Txiki-txikitandik hasi ginen denak igandero Mezatara, dotrinara eta bezperetara joaten, eta etxeko euskaraz aparte kalean eta eskolan zerabilten gaztelania eta elizako latina ikasten.

Aita debozio handikoa zenez, mutil koskor ginelarikan ez genuen galtzen erromeriarik, ez bederatziurrenik. Horrela ezagutu genituen santu ospetsuen festa egunetan inguruetan eraikitako ermita eta elizatxo guztiak, kalendarioaren arabera antolatutako jaiak.

Hala nola, *San Prudentzio* sukarren kontrako abokatua, apirilaren 28an, Azkizuranzko estratan. Azkizura iritsita mahastiz inguratutako auzoan *San Martin*, azaroaren 11n, atarian harrizko irudi batek adierazten zuena nola bere kapa ezpataz bikoiztu zuen behartsu bat janztearren, Santiagoko bidean Zumaia aldera goazela. *Santa Magdalena* hiri barrenean, uztailaren 22an, ongi dakizun bezala Jesukristori oinak urrindutariko bere ilajeaz garbitu zituena. Uharte gailurreko *San Anton*, ekainaren 13an, abere eta azienden zaindaria, talai ederra daukana baleak eta iragaten diren itsasontziak largabistaz kontrolatzeko. *San Pedro* arrantzale eta marinelen patroia, ekainaren 29an portu ondoan, eta *San Gregorio* ermitatxoa, maiatzaren 9an ospatzen dena, izurriteen aurkako zaindariari sagaratua.

Abuztuko lehen igandean Itziarko Ama Birjinaren eliza bisitatzera ere joaten ginen noiz behinka, batez ere lehorrean egotea suertatzen zitzaigunean, non paisaiaren ederra kontenplatuz kantatzen genuen *Stella Maris* kantua latinez.

Maiz joaten ginen ere Zarauzko *San Pelai*o bisitatzera, ekainaren 26an, kastitatearen eta ohitura garbien zaindari eta gizon pitozaleen etsaia. Bagindoazen bada kostaldean zebiltzan untziei etengabe begira, so eta so, itsasoaren ostertzean munduaren borobiltasuna sumatzen genuela. Oroitzen naiz ere nola Debako sarreran ibaiertzean zegoen Sasiolako komenturaino iritsi ginen aitaren ezagunak ziren San Frantzisko Asisi ordenakoaren fraideak bisitatzera. Honen eguna urriaren 4a zen.

Baita nola behin itsasoz Ondarrabiaraino joan ginen aitaren itsasontzi belarian eta portu barnean sartutakoan desenbarkatu ondoren oinez egina zeukan promesa betetzearren Ama Birjina Guadalupekoraino igo ginen, Jaizkibelgo magalean ziren paisaia ikusgarriak, hala nola Bidasoa ibaiko ez gozatuz.. Irailaren 9an.

Baita egun bat lehenago ere, Irailaren 8an Ama Guadalupekoaren bezperan izaten zen, Irun-Iranzuko Junkaleko Andre Mariaren elizara, nongo erretaulan miresten genuen San Joakin eta Santa Ana ama birjinaren gurasoen arteko besarkada eta Andre Mariaren jaiotza.

Halaberki, beste urte batean nola probintzian barrena sartuz Aizarnako mendi tontor baten gainean *Santa Engrazia* ermitaraino igo ginen, paraje paregabean kokatua, itsasoa bertatik ere ikusten daiteke. Eta Arantzazuraino ere beste promesa bat kunplitzearren, eta nola probintzia osoa batetik bestera igarota aski nekatuta bidean iritsi ginen Aloña mendiko magalera.

Baraderoa deitzen zen lekuan untzigintzan ari ziren bitartean untziak iraulita, alderantziz jarrita gila zerura begira, bere sabel zabala eta zurezko saihets eskeletoa erakutsiz eta bertan hamaika arotz konponketan, tiriki-taikiri mailuen hotsa, aizkorak dantzan eta zerrak zirri eta zarra, bike eta alkaterna usaia nonahi eta suak sortu kea haizeak aldamenean zabaltzen zuela, gu txabolatxoak eraikitzen egoten ginen ekaitzak ekarritako abarrekin eta untzi txikiak euren belatxoa eta guzti moldatzen.

Izkirak, karramarroak, lanpernak, lapak, txirlak eta muskuiluak biltzen genituen ere inguruko harkaitzetan. Batzuek gordinik jaten eta besteak etxera eramaten, gero ur irakitan egosten eta hozten utzitakoan gusturasko jaten. Bestetan zulo handiak egiten genituen hondarretan tranpan erorarazteko erasotzen gintuzten etsaiak. Irudikatu itsasontziak eskuz, makila batez eta labainaz ezartzen genituen aurrez aurre zuloaren alde banatan eta botatzen genuenean bat zulora huraxe bai izaten zela algara.

Olagarroak harkaitzen arteko putzutan, marea behean zela, burdinazko punta zorrotza zeukan makilez biltzen genituen eta bat harrapatzean haiexek festak egiten zirenak, etxera eraman eta eltze handi batean ura irakiten jarri eta hiru aldiz izualdi handi bat eragin ondoren biguntzen zen, oso gogo onez jaten genituelarik haren atzamar peatsigarriak.

Harri xapalak hautatuz, burua makurtuz eta begiak ur gainaren marran ezarriz beso kolpe batez boteaz txanpan nork

lortzen jauzi gehiago egiten zuen ahalegintzen ginen. Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi...hamaika.

Getariako San Salvador elizan lehen aulkietan esertzen zirenak herriko familiarik printzipalenak eta aberatsenak ziren. Gu ez ginen pobreak ez eta aberatsak, baizik eta itsasoko langile apal eta saiatsuak. Bagenituen tratatu onak, ordea, Zarautz, Arrona, Amilibia, Olazabal, Gorostiaga, Urkiola, Puerto, Orexa eta Bildain familietako jauntxo guztiekin, bai eta Zarautz, Zumaia eta Deba herriko armadore aberats, kapitain pilotu eta itsasoko jendearekin....

Antzinako tradizioari jarraiki San Salvador elizako koru ederrean biltzen ziren noizbehinka Gipuzkoako Ermandadeetako agintariak erabakitzearren elkarren arteko sesioak, hala nola Gaztelako erregeekiko zituzten itunak eta arazoak. Oroitzen dut nola hamabi urte nituela, 1499an hain zuzen, Juan Perez de Balda herriko alkatea zena, Beltran Ibañez de Gebara, alkateordea, Martin Diaz de Miurubia eskribaua eta Pero Hernandez de Izeta batxilerra maisua bildu ziren Gipuzkoako beste gizon dotore multzoarekin...

Ordurako ikasiak nituen liburu txiki batean gaztelaniaz, 1496an Granadan bertako artzapezpikua zen Hernando de Talaverak idatzitako *Breve doctrina ...* delakoak zituen galdera eta erantzun guztiak buruz.

Nirekin beti eraman dudana latinez idatzitako *Kalendarium* bat, zeina Venezian 1492an argitaratu zuen Johanes Regiomontanus gizon azkarrak eta zekartzanak hileroko

egunen santutegiaz gainera, ilargiaren eta eguzkiaren eklipseak, ilunaldiak 1519tik 1531 artekoak iragarrita.

Beste liburu bat, hau politagoa eta erraxagoa iruditu zitzaidan, gaztelaniaz idatzia eta hau ere irudiz hornitua baitzegoen, Johannes de Kethan medikuak burutua eta 1495ean Brocar editoreak argitaratua Iruñean, titulu honekin hain zuzen: *Epílogo en medicina y cirugía*. Pertsonak izaten ohi duten gaitzez, oinazeez eta nortasunez mintzo dena. Osasuna nola zaindu behar den irakasten diguna. Adibidez lehen orrialdean honakoa irakur daiteke: *Las complexiones son quatro: El colérico es seco & caliente de natura de fuego. El sanguineo es caliente & humido de natura d'ayre. El flegmatico frío & humido de natura de agua. El melancolico frío & seco de natura de tierra...*

Anaia Sebastianekin batera irakurri nuen, eta Izeta maisua genuen irakasle une hartan, galdetu geniolarik, lehenbizi Sebastianek eta gero nik *Ni zein konplexiotako naizela uste dezun*, hark berehala erantzun zigun irribarre bat ezpainetan.

— Hi, Sebastian, lehorra eta beroa haiz, haserrekorra, suaren naturakoa, baina garaia eta ederra haizenez emakume aberats batekin ezkonduko haiz. Eta hi, Juan Sebastian, hotz eta hezea haiz, patxadatsua, uraren naturakoa. Hire bizi gehiena itsasoetan barrena pasatuko duk, eta ez andreak ez eta abenturak ez zaizkizu faltatuko, baina hauek gaindituz ospetsu eta aberats bilakatuko haiz.

Hamar urterekin banekien jada latinez meza laguntzen, gaztelania eta matematiketako erregela nagusiak eta igeri beste

mutikoak baino arinago. Aitaren itsasontzian hasia nintzen berak eta beste marinelek arrantzan jotake gelditu gabe aritzen ziren bitartean, aitak seinalatutako arrutari zintzo jarraitzen eta tinko eusten lemari, gradu bat ere desbideratu gabe.

Honela ezagutu nituen inguruetako portuak. Ondarrabiatik Donostiako Zurriolara lau legoa zeudela, tartean Pasaiako portu ongi babestua, eta hemendik Getariara beste lau, bitartean Orio eta Zarautz lagata. Getariatik Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo, Plazentzia, eta Portugaleteko portuetan zunda ureratu ondoren zenbat brasatan behar zen muilatu. Beraz, Higerretik Matxitxakorainoko kaia guztiak ezagutzen genituen ongi eta haizearekin nola jokatu eta dantzatu, babes eta gerizpera eramanez arte gure untzia.

Negua zenean etxeke sukaldean ordu asko pasatzen genituen kontu-kontari, eta haur kantak abesten. Oroitzen naiz nola amak besoetan zeukanean titia eman ondoren Antoni, etxeke bosgarrenari, kantatzen zuen ahots oso garbiz

*Anton bat eta Anton bi*

*Anton putzura erori,*

*Edan zituen pitxar bi*

*Etzan gehiago egarri.*

Beste anaiekin jolasean ginelarik kantak, esamoldeak eta igarkizunak ugari erabiltzen genituen ere eta umorez gainezka ginenean maiz kantatzen genuen honako hau:

*Bat, bat, bat, bart parrandan ibili*

*bi, bi, bi, ez naiꝥ ondo ibili*

*hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru*

*lau, lau, lau, sardina bakailau...*

Zarautz ez gari ez galauts; Deba eta Mendaro, eldu ta igaro; Ondarru ta Mutriku, idiak idia aurkitu; Lekeitto, barreak ito; Elantxobe, mila probe; Getarian gezur bat esan nuen ni baino lehenago zen atarian. Eta horrelako asko. Pentsaketan ezarri eta galdezka ibiltzen ginen: Beti lehorrean eta beti bustia (mihia); Hegalak bai eta ezin hegan joan (arraina); Inor bere ez dabilen bidea eta guztiek zein den dakiena (Via Lactea). Oso gutxitan elurra egiten zuen arren aldameneko mendiak zuritzen zirenean urte berri aldean bazkari berezi baten ondoren, non aitak hasieran beti esaten zuen *Ortuan perrexila, saleruan gatza, atera platerera jain daigun legatza*, oso gogo biziz kantatzen zuen, eztarria aski lakaztua zeukan arren itsasoan ahots goraz hitz egiten baitzuten gehienetan:

*Mendi altuan elurra daidi*

*aran baxuan eguzki,*

*Mendi aran guztiak baino*

*ene koitaok nagusi.*

Neguan Sasiola komentuko fraide frantziskanoen liburutegira joaten nintzen maiz, bertako Frai Pedro de Arrieta, Frai Martin de Gaztañaga eta Portugaldik Martin Otxoa Irarrazabal, Debako San Felipe galerako kapitainak

ekarri zuen eta Sagreseo komentutik iritsitako Frai Diego de Almeida kartografoarekin hitz egitera joaten nintzen eta aho zabalik egoten nintzen entzuten honek Afrikako kostetan eta Ekialdeko isletako kontuak, eta bereziki Moluketako aberastasunen albisteak kontatzen zituenean. Honek izugarritzko abilidadea eta finezia zeukan pergamino koloreztatuetan untziak margotzeko, portu batetik bestera ziren legoak kontatzeko eta latitudeak neurtzeko.

Nola Sagresen bazen frantziskotarren komentuaren ondoan gaztelu handi bat, nondik ikus zitekeen San Bizente itsasburua eta inguruetakoa kosta guztia. Hau Enrike itsasturiak berreraiki zuen, eta bere peko marinelek egindako deskubrimenduen babesleku izan zen luzaroan, bertako hondartzan itsasontziak konpontzen eta erreparatzen zirelarik, hala nola bidaiak luzeetatik iritsitako marinelen gorputz eta arimak.

Pergaminoak aski garesti saltzen ziren, hirurogeita hamabost marabedi balio zuen bederen bakoitzak, zurezko kutxa handi batzuetan ongi zainduak zeuden, eta margolariek urre eta beste koloreekin lehenik ongi enkoadratu ondoren eta tituluak ezarritakoan irudiz hornitzen zituzten, itsasontziak ozeanoetan eta kontinenteetako biztanle eta abereak margo apainetan. Hala itsas kapitain aberatsek soilik ordain zitzaketen eta hala Portugalen nola Gaztelan koroaren segetu moduan ezkutitzen zituzten. Tradizio handiena portulanoak eta nabigatzeko kartak egiten portugaldarrez kanpo, katalanak, italianoak eta bretoiak zirela.



Urteak joan eta urteak etorri, urak bere bidean zihoazen, San Simon eta San Judaetan ontziak ankoraetan egoten ziren gerizpean. Urriaren 28tik otsailaren 16raino ez ginen askorik mugitzen portu ingurutik, baina udaberriaren hasierarekin eta lehen eguzki beroaldi eta eguna luzatzearekin nola bagenituen batela pare bat hantxe ibiltzen ginen anaia guztiak estropadetan, arraunean, nor gehiagoka, nork eman lehenago *San Anton* uhartetxoari itzulia kaitik aterata, edota Zarauzko bidean, joan-etorrian.

Gure aitak bazeukan itsasontzi handi bat bere kontura zenbait marinelekin maneiatzeko zuena, zamak portuz-portu eramaten erabiltzen zuena, ez bakarrik Bizkaiko golkoan baizik eta Kantabriako itsas kosta guztian Higerretik Finisterreraino, eta hura gutxietsirik ausarta eta kementsu baitzen eta familia handia izanik hau aurrera ateratzearren, aspaldidanik Mediterraneoan gatza eta beste merkantziak garraiatzen Deba, Zumaia eta Bermeoko beste itsasontzi kapitain batzuekin hasi zen, ezagunak ziren San Andres eta Santa Maria untzien bidaiak egiten.

Cádizetik Savonara, Ibiza, Bartzelona eta Tortosa aldetik Genoarainoko bidaiak gero eta maizago ziren. Trafiko ugari eta merkantziak oparo zerabiltzaten. Ardoa Marseillatik Ingalaterraraino. Garia, larruak, atunak, harenkak, esklaboak Sevillatik Bartzelonara. Genoarrek eta firentzetarrek erakutsi zioten Sevillari itsasoetako bideen finantziarioa eta aberastu zuten hiria, eta bidenabar gure kostaldeko herriak ere.

Hamabi urte bete nituenean eta Sebastianek jada hamalau zituela laguntzen hasi gintzaizkion aitari itsas bidaia hauetan, eta bidaia luze hauetarako behar zen prestakuntza guztia ikasten. Segurantza, kreditoa eta kontaduria eramaten. Diru kantitate handiak zeuden jokoan, eta arrisku ugari zituenez itsasoak aurreikusi behar ziren zitezkeen egoera guztiak nola gainditu.

Zenbakietan azkar eta trebeak ginen Sebastian eta biok, eta kontuak eramaten genituen xeheki, egunez egun xahutzen zirenak kontatuz eta liburuan eskribituz, untziko sotoan ziren gauza guztien zerrenda ongi ikasiak genituela. Halaber, itsasontziaren parteen izenak eta hizkera ikasten joan ginen.

Ababor, abante, aingura, algarate, alkaterna, amarrea, amuak (aguarina, atxamarta...), anpoileta, aparejuak, arotza, arpoina, arpoinlari, arrauna, arraunlari, arria, atxuka bonbak, baleztrila, batela, bela, belari, belabarkua, bikea, boia, branka, brankaldeko gaztelua, driza, estrobua, gabia, gabizaina, galeoia, gaztelua, gila, gilagaina, gubia, haizeak (Iparra, Hegoa, Sortaldea, Sartaldea, Ipar-mendebala, Hego-sartaldea, Hego-sortaldea, Ipar-sortaldea, Ipar-ipar-mendebala nornoroeste deitua, etabar), haizaldea, haizapea, haize-arrosa, hondar-orena, istaiak, istriborra, itsasorratza, kapitaina, karela, katea, katebegia, konpasa, kontramaisu, korapiloak, kotak, kriseilua, kubierta, largabista, latina, lema, lemazaina, luzera, manga, maila, mailua, zur-mailua, maisu, masta, masta nagusia, mamutzarra, mapreza, mesanako bela, mutiloiak, noraiak, pabak, panela, pilotua, polea, popa, popaldeko gaztelua, poka, porra, portulanoa, sare-orratza, sokak, sokaburuak, berun-

soka, soka-mailadia, sotoa, toletea tosta, trinketa,txanela, txikotak, txintxorro, txista, txiripak, zalabardoa, zia, ziaboga, zurgina...Eta beste hamaika tresna eta izen.

Itsasoak errekak, ibaiak eta iturriak irensten dituela, baita marinela ere. Urak dakarrena urak daroala. Pilotuen eskuan haizerik ez, esateko ez dagoela pilotuaren esku haizeen norabidea aldatzerik. Fortunak mareak legez, batzuetan gora eta bestetan behera, aldrebes zebiltzala. Latineko palua bezain tente eta erne ibiltzen jakin beharrezko zela ekaitzetan, olatuek eraman ez zaitzaten. Mutrikuarrek eta ondarrutarrek beti zebiltzala haserre euren artean, popatik hartu eta popatik emon oihuka. Txiribogetako mirabeak mihi luze lotsabakoak zirela, gau laburrak eta egun luzeak edukitzen zituztela. Andrea, sua eta itsasoa guztiz gaiztoak, eta andre ederra etxean gerra. Baina orotan beldurgarriena itsasoko ekaitza zela. Orduan jartzen ginela marinela guztiak errezatzen esaten Santa Barbara, Santa Krutz, jauna, anpara zakiguz, eta promesak egiten Ama Birjina eta santu guztiei.

Bestalde, Errege katolikoek Kristobal Kolonek Amerika deskubritu eta Indietako itzulia egin ondoren 1494an Tordesillas hirian sinatu zuten dokumentu bat, non Munduko esfera bi zatitan banatzen zuten portugesek eta kastillanoek. Cabo Verdetik mendebaldera zihoazen itsaso eta lurak 370 legoatan portugesen menpe gelditzen ziren eta harantzagokoak Gaztelako erresumarenean, eta Asia ekialdeko lurak bien artean. Tratatu hau Julio IIa aitasantuak berriro konfirmatu zuen, baina ez zen errespetatzen , gauza

jakina delako erregearen lurra eta urak iristen direla soilik beren kainoiak iristen diren lekuraino bakarrik.

Sevillan eraikita zegoen Itsasoaren Etxea, Domus Indica, non Indietako arazo guztiak antolatze bide ziren, adibidez, kapitain izendatze eta itsasoetan barrena ibiltzeko baimen guztiak. Hala bada, 1503an sortu Kontratazio Etxea izan zen kartografiaren gaineko menpea burutu zuena, Koroaren izenean. Bertako pilotu nagusia arduratzen zen geografo taldea koordinatzen; talde horrek espedizioetatik etengabe jasotako aurkikuntzek eta nabigazioek sortutako albiste eta mapekin karta nautiko berri bat osatzen zuten, errege patroia, behin eta berriz eguneratua.

Kartografo horiek nabigatzeko kartekin hornitzen zituzten espedizio berrietako pilotuak, zeinekin beren helburuak lortzen zituzten. Pilotu horiek bueltatzen zirenean haiek emandako informazioarekin kartografoek aurkikuntza berriak beren mapetan sartzen zituzten. Horien artean aipagarriak dira, garai ezberdinetan, Juan de la Cosa, Andres Morales, Americo Vespuccio, Nuño García Toreno, Diego Riveiro, Alonso Chaves, Alonso Santa Cruz, Jerónimo Chaves edo Juan López Velasco.

Mende honetaraino nabigazioaren zientzia aski apala zen, estimaziozkoak, gutxi gorabeherakoak, baina portugesekin hasi ziren itsasontziaren kokapenaren gaineko kalkulu guztiak zehatzagoak izaten, urteen poderioz asmatu, eskuz egin eta erabilitako tresneria: (astrolabioa, koadrantea,

baleztrila, hondar-erlojua, e.a.) hobeto erabiltzen eta kalibratzen baitzuten eginbeharreko bidaiak.

— Aski gaurkoz, Urdaneta. Bihar jarraituko diogu.

— Zein ordutan gura du hemen egotea, almirante jauna?

— Ordu berean. Bihar Afrikako gertaerak kontatuko dizkiat.



## II

### DULCE BELLUM INEXPERTIS

**F**RANCISCO Jiménez de Cisneros fraide frantziskanoa iritsia zen garai haietan Toledoko artzapezpikua eta Gaztelako elizaren buruzagia izatera. Doña Isabel Gaztelako erregina eta Don Fernando Aragoikoa erregeak sartu zirelarik triumfalki 1492an Granadako erreinuko hiriburuan, ez Jeruslaemen Jesukristo bezala asto ttipi baten gainean, zaldi handi hornimenduz beteen eta konpainia dotore baten gainean baizik, jadanik hamar urteko gerra luze eta odoltsuan jende ugari zeutzan hilik.

Gerra honetan parte hartu zuten Bizkaia eta Gipuzkoako itsasontziek soldaduak batetik bestera garraiatzen, bai eta hirietako setio eta zaintzan kainonazo ugari jaurtiz, eta ezpata gupidagaberik dantzatzuz, hala nola 1487an Vélezen eta Malagan, zeinetarako erregeek bahitu zituzten 30 upeletik goragoko Kantabria kostako itsasontzi guztiak.

Hala bada gerra bukatutakoan Iñigo Artieta lekeitiar kapitaina, militarra eta armadorea zenari erregeek enkargatu zioten Boabdil Granadako errege moroa bere familia, ahaide eta gortearekin Afrikara eraman zezan. Ondoren, beti gerran baitzeuden Gaztelako erregeak Portugaleko erregeekin, gidatzen zuen untzi flota Ameriketako espedizioen zaindari bilakatu bide zen.

Halaberetsu, erregeek 1499 urtean agindu zioten Frai Frantzisko Jiménez Cisneros artzapezpikuari, honek berak gomendaturik, Granadako erresumako moroen lurralde hura ebanjelizatu zezan eta lan zail honetan Frai Hernando de Talavera fraide jeronimoa zenak lagundu zuen, kristau dotrina bat arabieraz argitaratuz moroen konbertitzeko. Baina nola giristinotzeko ahaleginak egin arren, tratu txarrak zirela medio, gutxi konbertitzen ziren benetan eta beren gogo-arimek jarraitzen zuten erlijio zaharrear, erregek sinatu 1502ko otsailaren *Pragmática* batek behartzen zituen bertako biztanle guztiak bataiatzera edo deserriko bidea hartzera.

Cisneros 1507an Gaztelako inkisidore nagusi izendatu zuten, eta honen fede sutsuak Gurutzada berri bat antolatzen eragin zuen Mediterraneora ematen zuten Afrikako lurraldeak konkistatzera eta giristinotzera. Eta hala Cartagenako portuan haren aginduz prestatzen hasi ziren 1508ko irailean Armada handi bat.

Valladoliden 1509ko apirilaren 10ean errege zedula batek Migel Martinez de Arriaran eta Juan Martinez de Aristizabal kapitainei baimena ematen zien azken honen anaiak Bizkaia



eta Gipuzkoan bildutako itsasontzi eta soldaduak biltzekoa, eta hauek laguntzeko mandatua joan zitezen Afrikara moroen kontra borrokan, kristandadearen zabalkundea egin zedin lurralde pagano haietan eta era berean hango itsaso zabalean merkataritzan zebiltzan Gaztelako untziak ongi zainduak izan zitezen.

Pedro Nabarro kondea ezarri zuen Cisnerosek Armadaburu, zeina 120 upeleko galeoian zihoan, honek patroia bezala Micer Colastrino zeukala. Eta honi batu zitzaizkion hamar galera hirurarraunileradunak, laurogei itsasontzi handi eta beste ttipiago ugari. Asko Bizkaia eta Gipuzkoakoak ziren. Hamar mila soldadu oinezko eta lau mila zaldun.

Hona garai hartan ezagutu nituen armadore, kapitain, pilotu eta maisu bizkaino eta gipuzkoano batzuen izenak: Rodrigo Portuondo, mundakarra, itsasontzi handienetarikoaren jabe, kapitain eta pilotu zena; Fernando Lizaola, *Santa María de la Piedad* untziaren jabea, 50 marinel, 16 itsasmutil eta 2 paje zeramatzana; Miguel Laborda Pasaiakoa, zeinari Iñigo Artatxek, itzuli zenean eriturik, erosi zion untzia; Fernando Gabiria, Marieta untziaren jabea; Martín Otxoa Lusarra, San Pedro untziko pilotua; Migel Arriola, *San Antón* untziaren jabea, nire aita bertako pilotu eta ni kontramaisu ginelarik; Andrés Pérez Indanetako, Santa María untziko kapitaina; Juan Pérez Markinako, *Santa María de Begoña* untziko pilotua; Pedro Uranatxea 240 upeleko untziaren jabea; Pedro Uriarte hiru mastadun karabela bateko pilotua; Otxoa Arteaga 15 tostadun eta bi mastadun galeoiko maisu eta pilotua;

Kristobal López Arriaran 14 tosta arraunlari zeuzkan *San Sebastián* itsasontziko kapitaina. Otxoa Arteagaren galeoia 50 zaldi eramateko prestatua zegoen...eta orain gogoratzen ez ditudan beste asko...

San Isidro nekazari egunean katedralean Meza nagusia eman zuen Cisnerosek, sermoi luze eta sutsu batekin kasuila dotorez hornitua eta hamaika apaiz eta fraidez inguratua, zeremonia handi bat bertan kapitan eta marinel guztiak betetzen zutelarik ia ezin kabiturik, eta 1509ko maiatzaren 16an partitu zen arratsaldeko hiruretan komentu eta eliza guztietako kanpaiak jotajo dantzan zebiltzala, eta hurrengo egunean desenbarkatu ginen Mazalkibirren Orango hiritik gertu.

Cisnerosek Armada buru Pedro Nabarro kondea utzi zuen. Eztabaida izan zuen honek gerra estrategiez deusere ez zekien artzapezpikuarekin erasotzeko egokieraren uneaz, baina hark agindua eman eta errezatzeraz erretiratu zen hiriko gaztelura.

Erasoa lehorrez eta itsasoz prestatu zuen Nabarrok. Armadak bonbardatzen zituen murrak, eta lehorreko indarrak lau taldetan banatu zituen, hiri errebaletan borrokatu zutelarik. Artilleriak eta zaldungoak batera erasotu zuten, eta behartu etsaiak hiri barnera erretiratzen. Asaldamendua eskailera bitartez egin zuten, aurrera eta atzera ibili ondoren erasoan portuko kaleetan eta hiriko ateak zabaldu ondoren hartu zuten Alkazaba, eta zenbait soldadu hilik bidean utzita, gailurra hartu zutenean Juan de Isasti errenteriarrak zeuden

banderak kendu gure Armadakoak ezarri zituen dorre altuenean, eta jaitsi zirenean gailurretik oihuka *por Santiago y Jimenez de Cisneros*, hiria erre eta ezpataz pasatu zuten, andreak bortxatuz, agure eta haurrak erailez, eta bortizkeria izendaezinak eginez.

Hurrengo egunean Cisnerosek fraide gorrea atzetik zeukala bi meskita eliza bilakatu zituen. Bata *Nuestra Señora de la Victoria* deituaz eta bestea *Santiago*.

Hirian buru bezala Pedro Navarro utzi zuen eta Cartagenara itzuli zen irten egunetik aste batera, presak hartuta bailukeen, 23an hain zuzen, Oran konkistatu, bertan ziren 300 gatibu aske utziz, moroak nahitaez bataiatu eta gero. Arrakasta ezin handiagoa omen. Bost mila etsai hilak, hirurehun kristauen kontra. Bostehun mila ezkutu harrapatu zituzten, hainbat eta hainbat merkantzia, esklabo eta bahitu. Dena den soldaduak ez ziren kontent soldata ez baitzuten jaso azkeneko hiru hilabeteetan eta oihuka zebiltzan karrketan: *paga, paga que el fraile es rico*.

Soldadu tropa mordo bat bertan utzirik Pedro Nabarro Bugia hirirantz zuzendu zuen Armada. Eta zitadela bonbardatu ondoren itsasotik hirian sartu ziren heureganatuz dendak, baxerak, joia preziosoak, andreak, erreskateko presoak, zaldiak, gameluak eta abere mota orotarikoak. Halere hau ez zen konkistatu odolik eta bajarik gabe, zeren eta Altamirako kondea, kapitan argia zena, hil baitzen bertan eta ez etsaiek jaurtikitako geziez bere tropako soldadu batek botatako zagita batez baizik.

Oranen bezala Bugian beste destakamendu bat utzirik Tripoli erasotzera abiatu zen Pedro Nabarro gelditzen zitzaion Armadarekin. Ohi bezala itsasoz bonbardatu ondoren sartu ziren oinezkoak gauez hirian eta meskitan babestuak sentitzen ziren guztiak, errefuxiatu guztiak ezpataz pasatu zituzten. Gure aldetik ere hirurehun gizonek bizitza galdu zuten, kalez kale borrokatu ondoren, jada oso nekaturik baitzeuden. Artean jada Afrikako beste gerretan parte hartua zen Kristobal López de Arriaran almirante itxasoarra hil zuten. Eta tropa aski nekaturik eta akituta egon arren alferkerian galdu ez zedin Navarrok erabaki zuen Gelves uhartea bereganatzea, eta horrela zortzi galeoi hara zuzenduz agertu zen bertan.

Isla txikia da, hondartza ugari dituen eta zurezko zubi batez kontinenteari atxikia. Palmondoak, olibondoak, alkeriak, ur putzu gutxi batzuek auzo tipi batzuek besterik ez. Baina gutxiena espero zutenean moroek eraso egin gintuzten tropa handi batekin, eta Navarro saiatu zen arren itsasontzira eramaten soldaduak, asko eta asko bertan akabatu zituzten zimitarra zorrotzez eta beste batzuek itota han gelditu ziren.

Galeren artean Albako dukearen aita Gartzia Toledoko bertan hila zetzan hala nola beste 60 kapitan ospetsu, baina hain ospetsu ez izan arren niretzat garrantzi handiagoa zuen nire aita bertan gelditu baitzen hila.

Zerbitzari, ezkutari eta soldadu anitz, bizkaino, gipuzkoano eta nabarro itsasora erortzen zirenean ito egiten ziren ez baitzekiten igeri, eta beraz gerraz aspertuak erabaki

zuten Cádiz, Sevilla, Málaga, Motril eta kostako beste herrietan kokatzea eta bizitzea burdinaren merkataritzan aritzeko, bertako andreekin ezkondua.

Bostehun dukat promestu ziguten kobratuko genituela espedizioaren ondoren portura iristean, eta bakoitzari zegokion karguaren arabera ordainduko zitzaiola, baina ez zitzaizkigun kontuak ongi atera. Bagenekien nola Italiako kanpainan El Gran Capitán deitzen zutenak urkaberan zintzilikatu zuen Itziar izeneko kapitaina soldata firme exijitzeagatik.

Bizirik atera ginela gerra hartatik eta fedeak bultzaturik Cartagenatik Alacantera abiatu ginen fraide jeronimoek zaintzen duten Santa Verónicako Monasteriora, non gordetzen den emakume santu hark Kalbarioko bidean zapi batez Kristoren aurpegia sikatu ahal izan zuena ikustera, zeren eta Mosen Pedro Menak Erromatik ekarri irudiak Veneziako hiria izurriteaz libratu ahal izan baitzuen.

Ni maisu lanetan nenbilenez eta tesorero kontuak eramanez porturatutakoan eta Pedro Navarriori eskatutakoan zor zigutena honek erantzun zigun koroari eskatzeko bera sosik batere gabe zegoela eta kutxa hutsik gelditu zitzaiola. Itxaron egin beharko nuela, baina nire pean zeuden marinela ez zeuden prest itxaroteko.

— *O sino vete a Cádiz que allí están Juan de Lezcano, más rico que nadie. O a la Casa de Indias donde tienes a Juan Lopez de Recalde de contador, y el canónigo Sancho Ortiz de Matienzo que es tesorero, son de tu tierra y mandan mucho.*

Ezagunak ziren herrian aspaldidanik Domenjon Gonzalez Andia, erregeren ganbara idazkari eta Probintziako eskribau fidela zenaren heriotzan kantatu zen koplak hura: *Sagarra eder gezatea, gerrijan ere espatea, Domenjon de Andia, Gipuzkoako erregia*. Hala nola Ondarrabian Gaztela eta Gipuzkoako tropek frantsesen kontra izandako gerra zela eta asmatutako beste hura, *Juan de Lazkano beltzarana, frantses osteak jakingo du ura Ondarrabian zana*.

Beraz ongi pentsatu eta gero igo ginen berriro San Anton itsasontzira eta Malagatik Cádizera bidea egin genuen Gibraltarreko hertsidura iraganik aurrean ikusten genituela Tanger bezalako hiria, eta inongo piraten asaldamendurik sufritu gabe, iritsi ginen Cádizeko badia eta bertan jaurtiki genituen aingurak.

Ekainaren erdian geunden eta bertan zeuden muilaturik Juan de Lezcano, Juan López de Agirre, Santxo Agirre eta Beltrán de Arteagaren itsasontziak parte hartu zutenak ere Afrikako kanpainan.

Galdetu nuen Lazkanogatik eta dorretxe eder batean bizi zela esan zidaten. Presentatu nintzaionean nire aita ezagutzen zuela esan zidan eta haren zintzotasuna eta jakiturgia itsasoko gaietan miresten zuela, baina diru kontuetan ezin zidala lagundu ezertxo ere bere kutxa ere hutsik zegoelako soldadu eta marinel guztiei pagatu ondoren, Cisnerosek promestu zuena hutsean gelditu baitzen, peko erreka jota zegoela eta malkarrotan.

Ezezko honen aurrean pentsatu nuen berriro itzultzea eta hitz egitea Indietako etxean zeuden Juan López de Rekalde kontablearekin, Santxo Ortiz de Matienzo kalonje eta tesoreroarekin, eta diru kontuak ere zeramatzan Domingo de Otxandianorekin. Hiru hauek Juan Rodriguez Fonseca Indietako ebanjelizazioaren arduradun zen apezpikuaren aginduetara zeuden. Afari bat baino gehiago ordaindu arren Juantxo Arrietak Sevillan zeukan *La Ballena* tabernaren gela erreserbatuetan ez nuen lortu ez marabedirik, ez dukatik, ez koroak eta Cisnerosek promestu zizkigun diruetarik batere. Geroago jakin nuen, ordea, Gortea urrun zelarik eskua poltsan sarritan sartzen zutela eta ondasun ugariren jaun eta jabe egin zirela. Nik une zail hartan soil-soilik euren gomendioa lortu nuen, alegia, Sevillan *rúa de los franceses* deituan zeuden saboiar bankariekin mintza nendin.

Sosik batere gabe eta Saboiako dukearen zerbitzari ziren Bernardo eta Giovanni Gaboto saboiar anaiekin hitz egin nuen. Banekien debekatua zegoela gerrako itsasontziak saltzea, baina nire mende zeuden marinelen eta soldaduek ez ninduten uzten eguna joan eta eguna etorri agindu zitzairen soldata pagatzeko.

Beraz, neure San Anton itsasontzia bere armamentu eta guzti saldu nuen soldadu eta marinelen paga ordaintzearren. Dokumentu bat sinatu nuen, eta salerosketaren ezkutu, dukat eta marabediak jaso nituen. Nirekin zetozen soldadu eta marinelen konfiantzazkoak, eta enbarkatuz berriro denak, Bermeo eta Mutrikuko portuan paga kobratu ondoren jaitsi

ziren gehienak. Muilatu genuen bada eta aingurak bota genituen San Salvador elizaren aurrean Getariara iritsitakoan.

Triste nintzen erabat, baina ama pozik zegoen semea besarkatzerakoan, hainbeste urte pasa eta gero gerran, bertan senarra galdu eta alargun bilakatu arren. Goiz batez itsasora begiak zuzentzerakoan *San Anton* gure untzia zena desagertua zen. Isabel, nire lehen amodioaren separazioan sentitu nuen min adieraz ezina baino krudelagoa izan zen hura. Baina pentsatu nuen Afrikako gerra hartan hildakoen senideek ere, hala nola Granadatik, Andaluzia osotik, Gaztelatik, Aragoitik, Nafarroako eta Portugaleko erresumetatik bidali zituztenean judu sefardiek oinaze eta minbera handiagoa izango zutela *Ea judíos, a enfardelar / que mandan los reyes que paséis la mar* kanta eta agindu hura entzutean.

Eta gaurkoz aski, esan zuen almiranteak.



### III

## DOMUS INDICA

**M**ILA bostehun eta hamazazpigarren udazkenean jadanik bazezilen antzina Betika deitu Sevillako hiri ikusgarrian Fernão Magalhães. Porton leinu noble batean jaioa eta urteen poderioan kapitain jakintsu bezain harro bilakatua, Portugaleko erregearekin haserreturik, ez baitzion estimatzen honek merezi adina Ekialdeko Moluka irletan eta Afrikako kostetan egindako lanak eta peleak erregearen alde, non erren gelditu zen betirako, ez eta ordaintzen kargu on batekin, hain baitzen anbizioz betea eta erresumina, ezen Espainiako erregearen zerbitzutan bere ekialdeko munduaren ezagutza ezarri nahi izan zuen beste portugesez batzuekin batera. Desleialtasun hau portugesez sekulan barkatu ez ziotela.

Egonak ziren bera eta bi pilotu azkar, Frantzisko eta Ruy Faleiro anaiak, Sagreseko gazteluko bibliotekan kapitainek eta

fraideek egindako portulanoak eta mapak segeretuki aztertzen, hala nola Lixiboneko hiri gero eta ederrago bilakatzen ari zen Tresoreriako kartografia gelan. Ikusia zuten Martin Bohemiako kosmografoak moldatutakoa, non suma zitekeen Indietako bidaia egin zitekeela mendebaldetik Amerikan, Patagonia aldean behar baitzuen kanala bideratzeko Hegoaldeko itsasoetarantz. Bai eta hori bera adierazten zuten marinel batzuen gutunak.

Fernando mila gerra eta itsasoko ekaitzetan zaildua, txikia, bizkar zabala eta bizar luze beltza zeukan. Begirada argia batzuetan eta iluna bestetan. Ekarriak zituen Moluketako uharte urrunetatik Enrike eta Jorge deitzen ziren bi esklabo sendo, bikain eta beltxaran, nagusia zaintzen zutenak eta, bai zerbitzari lanak bai interpretaritzakoak burutuko zituztenak.

Domus Indica, horrela deitzen zuten latinez etxe hura, Babilonia zirudiena, hainbeste jende arraza eta hizkuntza ezberdinetakoa ikusten baitzen bertan. Indietako ate berria bilakatu bide da. Sevillako hiri barnean kokaturik dago katedralaren ondoan. Honen itzalean eta babesean, esango nuke.

Hirian bizi da beste portuges bat, Diego Barbosa, ahaide urruna duena, gerra Magalhãesek untzitegiko buru izendatua izan dena, *Alcaide de las Atarazanas*, eta Santiago Ordenako zaldun izendatzera iritsi dena. Magalhães bezala ibilia baita nabigatzen eta gerra egiten itsaso urrunetan solas amaigabeetan igarotzen dituzte arratsaldeak biak Barbosak bere etxean bizitzera gonbidatzen duenean. Denbora labur

baten ondoren Barbara alaba enamoratzen da Fernãotaz eta elkarrekin ezkonduko dira, honela ez delarik areago atzerritar izango hirian.

Interesatua dago Ruy Faleiro adiskide astronomoarekin asmatu eta ondu duten egitasmoa, bidaia, errege berriari aurkezten. Baina lehenik *Domus Indica* deitu etxeko notableek ezagutu, aztertu eta baia eman behar dute, eta ez dirudi oso fidagarria denik kristau zahar haientzat portugés iritsi berria. Erdi etsiturik dagoenean Etxe hartako faktorea, jerentea den Juan de Aranda, interesatua ageri da egitasmoan eta gauza gehiago jakin nahian. Merkatari aditua da eta negozioetan abila, eta lehenik informeak eskatu dizkio bere kidea den Kristobal de Harori. Honen albisteak Magalhãesez eta Faleiroz ezin hobeak dira, nabigatzaile eta astrologo serio eta guztiz adituak bezala kontsideratuak baitira. Prest eta gertu zegoen Aranda abentura hartan sartzeko eta Koroako Kontseiluari gutun luze bat idazten dio azpimarratuz Erregearen zerbitzutan izanen dela. Ongi ikusten dute Gortean proposamena. Magalhãesek Faleirori ere bidaltzen dio beste gutun bat adieraziz Valladoliden errezibituko dituela audientzian erregeak hirurak — Bera, Faleiro eta Aranda —, eta bidaia ordaindu egingo zaiola.

Aranda, Faleiro eta Magalhães, aurkeztu ziren Koroaren Kontseiluaren aurrean. Hantxe zeuden Adriano Utretchekoa, Erasmoren adiskidea, Gilermo de la Croix eta Sauvage kantziler flamenkoak, eta Karlos Gantekoa errege eta gero enperadore izango dena, eta Burgoseko apezpiku eta Ameriketako arduradun zen Alonso Fonseca eta Ulloa.

Hasi zen Arandak presentazioak egin ondoren, eta Karlos errege gazteak hitz egiteko baia eman ondoren Magalhães hasi zen solasean. Portugesen Moluketako espedizioak kontatu zituen eta nola berak parte hartu zuen haietan. Hantxe gelditu zirela destakamendu batean espezien merkatu guztia zaintzearren portugesak eta bere adiskidea zen Frantzisko Serraoren gutun bat erakutsi zuen, non Ternateko bisir gisara ageri zen. Vasco de Gamak deskubritutako lurralde handiago eta aberatsagoak zirela. Froga bezala berekin ekarri dituen bi esklabo malaysiarrak, Enrike eta Jorge aurkezten zituen, erregea txunditurik utzi zutenak zeukaten presentzia bikainarekin. Urtero Portugaleko erregeak espezien monopolioaz berrehun mila dukat lortzen zituela negozio hartan, eta beraiek bakarrik ezagutzen zuten bide batetik, mendebaletik iritsi zitezkeela portugesak baino lehenago.

Magalhãesek hitz egindakoa Faleiro astronomoari pasatu zion hitza, eta hau mundua errepresentatzen zuen esfera batekin inguratu zitzaien eta erreberentzia handi bat egin eta gero esplikatuz zien beraiek bakarrik zekiten segetua, alegia, nola pasa Atlantikotik Hegoaldeko itsasoetara Amerika deitua kanal batetik igaroz. Portugaleko Alfonso V.a eta errege katolikoaren artean Gaztelako suzesio gerla bukarazi zuen 1479ko *Tratado de Alcáçovas* deituan kanpo politikan akordio batera iritsi baziren, bi erresumak beti borrokan ari ondoren Ozeano Atlantiko eta Afrikako kostetako lurraldeak norenak ziren eztabaidatzen, eta honen bitartez Madeira, Azore uharteak, Cab Verde, Ginea eta haratagokoak Portugalen menpe gelditzen ziren eta Kanariar uharteak Gaztelarenean,

Moluketako lurralde ezagun haiek Tordesillasen 1492an egin tratatuaren arabera Gaztelaren erregearen mugen barrenean gelditzen zirela.

Errege gaztea zegoen liluratuena egitasmoarekin, beste kontseilariek, zakur zaharrak izaki, arazoak besterik ez zituzten ikusten eta trabak ezartzen entseatu ziren, baina dena alferrik izan zen Karlosen borondatearen aurrean, zeinak erabaki zuen handik aste batera behar zituztela itunaren kapitulazioak sinatu.

Karlos erregeak 1518ko martxoaren 22an sinatu zituen hauek. Agirian portugesen eskaera guztiak onartzen ziren. Bost itsasontzik osatutako Armada baten buru, Kapitain Jeneral izango zen Fernão Magalhães eta ez zuen beste inori baimenik emango espedizio hura egiteko hurrengo hamar urtetan. *Adelantado* titulua izango zuen eta aurkitutako uharteetako gobernadore titulua izango zuten berak eta bere oinordekoek.

Halere, Alonso Fonseca apezpikuak, Ameiketako ebanjelizazioaren ardurdun zenak eta Kristobal Kolonen etsairik handienak ez zuen egokitzat jo atzerritar biren esku uztea Armada hura, bertan Kristobal de Haro merkatari eta armadore handiak dirua sartzeko prest zegoela adierazi zien arren, eta inspektore eta diru kontatzaile gaztelarrak ezartzea lortu zuen, bai eta ez zedin itsasontzi bakoitzean bost portugese baino gehiago joan.

Hasi zen, bada, Fernão Magalhães Valladolidetik Sevillara itzuli zenean lanean nekaezin, gelditu gabe, Armada

prestatzen. Pregoilariak beren korneta eta atabalekin hasi ziren apropos idatzitako bandoak aldarrikatzen Sevilla, eta Cádizeko portuetatik ez ezik Kantabriakoetatik. Horrela jakin nuenean aukera hori bazela, eta zorrak kitatzeko aukera izango nuela, Bermeo, Ondarroa, eta Debako pilotu, marinel, arotz, kalafate, txo eta beste zenbait gizon zaildu eta ausart bildurik Apallua kapitainarekin abiatu ginen honen Victoria izeneko untzian Sevillarantz.

Ez zuen, halere, Magalhãesek *Domus Indica* delakoan baimenak eta diruak zaintzen zituztenen partetik eragozpen baizik topatu. Errege gazteari egindako eskaera eta protestek eta ondoko aginduek, ordea, erraztu zioten bidea. Itsasontziak aurkitu eta erosi egin behar zituen eta honetarako San Lúcar de Barramedara joan behar izan zuen Joan de Aranda faktorearekin. Honen bitartekaritzaz lortu zituen erostea aski zaharkituak zeuden arren bost itsasontziok.

*Concepción*, 90 upeleko untzia, Juan Montero, Galiziako kapitainarena eta ni bertan maisutzat izendatuko nindutena, eta berrehun eta hogeita zortzi mila eta berrogeita hamar marabedi ordaindu zena.

*Victoria*, 85 upelekoa, aipatu Domingo de Apallua ondarrutarrarena, hirurehun mila marabeditan saldu zuena, bere apareju guztiekin, batela barne.

*San Antonio*, 120 upelekoa, Erandioko Diego de Asuarena, hirurehun eta hogeita hamar mila marabediren truke, apareju guztiak eta batelarekin hau ere.

*Trinidad*, 110 upelekoa, Lekeitioko Nikolas de Artietari erosi zitzaiona, berrehun eta hirurogeita hamar mila marabeditan, hau ere apareju guztiak eta batelarekin.

Eta bosgarrena:

*Santiago*, 75 upelekoa, beraz, txikiena, armadore bretoi batena, ehunda zazpi mila eta bostehun marabedi pagatu zena.

Eraman zituzten bost itsasontziok Guadalquivir ibaian gora bertako pilotu adituek eta *El Arenal* deitzen zuten parajeen baradero bat prestatu zen bertan itsasontziok kalafateatu, osatu eta beharrezko zituzten erreparazioak egitearren.

Lanok burutzeko ofizioko langile asko kontratatu ziren bai eta zaindariak ezarri. Arotzak mailu, lima, tenaza, iltze, puntapisa eta ginbaletekin, zerratzaileak zerra handi eta txikiekin, bi horzdun aitzurrak, zurginak aizkora luze eta laburrekin, kalafateak bike, estopa, ezko eta koilara handiekin, garraiatzaileak euren mando eta behorrekin, bela jostunak hari eta jostorratz luzeekin, larrugileak eta tindatzaileak, kupelgileak zur eta burdin artean, muilatuzainak...

Handik ez urrun murrailaren bestaldean, kale estu batzuetan orotariko merkantziak saltzen ohi ziren etxe sotoetako almazenetan: galtzak, galtzerdiak, alkandorak, xakak, xamarrak, xapelak, haria, orratzak, sare-jostorratzak, guraizeak, labainak, dagak, ispiluak, orrazeak, aizkorak, aitzurrak, katiluak, kizarak, kableak, poleak, sokak, kandelak, burdinaz eta beiraz moldatu kriseiluak...

Bestalde, erregeak uztailaren 20an bidalitako mandatua obedituz Nikolas de Artieta, Duarte de Barbosa eta Anton Cermeño Indietako Itsasetxeko bolborazainarekin Bilbora abiatu ziren armaz hornitzeko itsasontziak, egitekoa betetzeko lekurik aproposena zelako hau. Bai eta Gipuzkoa aldean Donostian eta Ondarrabian, eta Andaluzian baino prezio merkeagoan aurki zitzatekeelako.

Hala erosi ziren gerrarako beharrezko kontsideratzen ziren hainbat eta hainbat tresna eta erreminta, gauza jakina izan arren zentzu ona armak eta iskiluak baino beharrezkoagoak direla gerran, eta gerrarik onena baino bake txarrena hobe dela. Rodrigo de Garai izan zen lagundu zituenak batera eta bestera Bizkaian eta Gipuzkoan ezpatak, bolbora, lonbardak, baleztak, lantzak, pikak, zagitak, korazak bularra, bizkarra eta besoak babesteko, buruetako kasketak, burdinazko, berunezko eta harrizko pilotak, berunezko plantxak, ingude eta toberak... Eskopetak Markinan eta Eibarren erosi zituzten, bai eta bertsoak deitu kainoi txikiak eta handiak, murre hausleak. Bolbora Hondarribian. Arpoiak, amuak eta kortxoak arrantzarako Mutrikun.

Nuño Gartzinari enkargatu zizkion pergaminoak egin zituzten itsasontzi guztiek mariatzeko kartak eduki zituzten, eta jada eginak zituzten zazpi Rui Falerok erosi zizkion 13 mila marabeditan, eta Magalhãesek beste hamaika prezio berean. Astrolabioak, kuadranteak, konpasak, harea-orenak Hendaiako marinelek zioten bezala, mariatzeko iparrorratzak itsaso zabalean hain beharrezko direnak. Denez arduratzen



zen Magalhães, goiz goizetik, ezin iritsiz txoko guztietara bera bakarrik, eta ordezeko batzuek ezarri zituen.

Ni Sevillara 18ko udazkenean iritsi nintzen eta nola jadanik Kontratazio etxe hartan ezagutzen ninduten eta bazekiten nire itsasontziak kudeatzeko neukan esperientziaz kontratatu egin ninduten 1519ko urtarrilaren zortzian eta nire lehen soldata itsasontziko maisu bezala, dukat bat hilabeteko eta 375 marabedi asteko izan zen.

*Concepción* untziaz arduratu behar nuenez hasi nintzen negoziatzen eta sotoa hornitzen bidaiari beharrezko izango genituenez. Maisu guztiei liburu zuri batzuek eman zizkiguten sartze-ateratze, xahuketa guztien kontaduria zuzen-zuzen eramanez. Hala 89 ardo kupela sartu ziren eta kokatu arreta handiz, halaber 100 arroba olio, 40 arroba ozpin, 50 dozena harenka keztatu, 4 arroba bastina zakutan, 41 arroba urdai keztatu, 8 anega t´erdi babarrun, 18 anega garbantzu, 24 anega tilista, 50 baratxuri korda, 181 gazta, 10 t´erdi arroba ezti zazpi pegar handitan sartuak, 2 anega almendra azalarekin, 32 kupela antxuarenak, 2000 sardina zuri arrantzatzeko, 15 arroba mahats-pasa, 20 libra aran-pasa, 3 kintal piku, 20 libra azukre, 4 kaxa menbrillo, 3 txarro mostaza, 30 libra arrozarenak, irin kupela bat, alkaparrak, azeitunak eta beste kozina batean beharrezko direnak eskifaia bat elikatze bidaia luze batean. Noski ez zen falta ere ogia, ardoa eta olioia Armada bat bizirik iraunarazteko hain nahita nahiezkoak direnak.

Denbora pasa laguntzeko eta animoak ernetzeko nabigazioaren berezko lanak atsedetik hartzeko unerik uzten zutenerako eta gogorik ere gelditzen zenerako, banatu ziren bost atabal eta hogeit hamar pandero, kantekin eta doinuarekin gozatzeko. Kontratatu ziren ere bi apaiz Meza eman zezaten Armadako itsasontzietan, eta erosi ziren horretarako behar zituzten apareju, arropa eta tresneriak oro. Bat Trinidad untziko kapilaua zen, San Antonio untzian zihoan bestea.

Kalkulu zehatzak eginak zituen Magalhães berak neurtuz itsasontzi bakoitzari zegokiona, zeukan eskifaiaren arabera proportzionalki banatuz. Berrehun eta hogeita hamazazpi ginen orotara, eta bat bederari 9 kintal eta 17 libra bizkotxa egokitzen zitzaizkion 756 egunetan zehar mantendu ahal izateko.

Concepción itsasontziko eskifaia bilatzeko agindua neukan, eta nire gaineratik ezarriak nituen jadanik Gaspar Quesada kapitaina, Santxo Heredia eskribaua eta João Corbalho pilotu portugesa. Honek berarekin ekarri zuen ere hamabost urteko semea, Juanillo izendatzen genuena, txo bezala, eta otordutan zerbitzatuko ziguna.

Ez zen lan erraza kontratatzea eskifaia itsaso eta paraje ezezagunetan abiatzeko, arriskuz betea zirudien abentura hartan. Domus Indica deitu dudana patioan mahai bat zeukan Santxok, eta rolean eskribitzen zituen denen izenak, nik aurkezpenak egin eta gero. Lehendik gau batzuetan Juan Arrieta mutrikuarraren tabernan agertu ziren euskaldun batzuen ezagutza egin nuen eta animatu nituen nirekin

etortzeko. Izena eman eta nongoa zen esan ondoren Matienzok lau hilabeteko soldata aurreratu zion bakoitzari.

Partitzeko bezperan honela esan nion Herediari, *A ver, Santxo, pasa lista*, eta hasi zen ahots goraz banan-banan izenak kantatzen.

*Gaspar Quesada, capitán. (Ausente);*

*Santxo Heredia, escribano, Yo. (Presente);*

*Juan Lopez Caraballo piloto real (Ausente);*

*Juan Sebastian Elkano maisu de Getaria (Presente);*

*Juan de Akurio contramaisu de Bermeo (Presente);*

*Hernando Bustamante barbero de Mérida (Presente);*

*Antonio Basazabal calafate, de Bermeo (Presente);*

*Joan Campos despensero de Alcalá de Henares (Presente);*

*Domingo Yarza carpintero de Deba (Presente);*

*Pero Perez tonelero de Sevilla (Presente)...*

Gero hamar marinelen izenak eman zituen: Frantzisko Rodriguez Sevillakoa; Frantzisko Ruiz Moguerrekoa; Mateo de Gorfo Greziakoa; Joan Rodriguez Huelvakoa; Sebastian García Huelvakoa; Gomez Hernandez Huelvakoa; Lorenzo de Iruña Sorabillakoa; Juan Rodriguez mutua Sevillakoa; Joan Agirre Bermeokoa eta Juan Ortega Cifuentesekoa. Ondoren lonbardariak. Hiru ziren eta hirurak atzerritarrak. Hans

Vargue alemana; Maese Pedro Bruselakoa, eta Roldan Argote Bruggen jaioa.

Ontzi-mutil gazteak hamar ziren ere: Juan Olivarreko, Gillen, Guillermo Loleko, Kristobal Costako, Gonzalo Vigoko, Pedro Mugertegiko, Martin Isarraga Bermeoko, Rodrigo Macias Sevillakoa, Joan Navarro Iruñeakoa, eta Joanes Tuykoa. Eta azkenik bi Paje edo mutiltxo: Juanillo aipatu duguna eta Perutxo Txindarza Bermeokoa.

Denak kontatuta 35 ginen. Nazio ezberdinetakoak, kastillanoak, portugesak, katalanak, andaluzak, flamendarrak eta euskaldunak. Hamar ginen Euskal Herrietakoak, eta ongi konpontzen ginen gure artean, denak itsasoan zailduak baikin eta errespetatzen ninduten nire aginduak beti izan baitziren justu eta zentzudunak.

Egunero kapilaurik ez baikeneraman gure untzian, goizalbarekin kanpaia jotzen zuenean txoek Pater nosterra kantatzen zuten. Egurdiko eta ilunabarreko Angelusen kanpaiekin Ave Maria. Egunean zehar denek zituzten beren egitekoak seinalatuak, inor ez zegoelarik alferkerian ezer egin gabe. Egurdiko angelusaren ondoren despentsariak, ni aurrean begira nintzela, banatzen zituen errazioak zubian ongi tenkaturik zegoen burdinezko kaldero handi batean egositakoak burruntzaliaz betetzen zituela bakoitzaren latoizko katilua, eta gero ur errazioa beste untzitxo batean. Denek zeukaten bakoitzak bere ganibeta eta zali-sardexkak prest eta garbi.

Urdaneta gaztea, harri eta zur zegoen almirantearen memoria handiaz eta galdetu zion miresmenez beterik nola zeuzkan izen eta zifra guzti horiek buruan, bai despentsako jan-edanen bai armamentuarenak gogoan, erantzun ziolarik Elkanok:

— Bizitza honetan, txo, argi, erne eta tentuz ez bahabil adarra joko ditek laster, non fida han gal.



## IV

### PLUS ULTRA

**T**RIANAKO auzoan zegoen *Santa Maria de la Victoria* elizan bildu ginen bost galeoietako eskifaiak oro, 237 Armada gizon eta beste, harri eta zur zegoen auzoko jendez inguratuta, mila bostehun eta hemeretziko abuztuaren bederatzian, eta bertan fidelitate juramentua denok zin egin ondoren, *si, juro*, bai zin dagit esandakoan Fernão Magalhãesek jaso zuen Francisco Villegas pintoreak margotu erregearen estandarte Sanchez Martinez de Leyva korrejidorearen eskutik.

Biharamunean goiz, berriro jende multzo handia kaian zegoela San Lorenzo eguna zen eta *El Puerto de las Mulas* deitu parajetik irten zen Armada, buru *Trinidad* zihoala trinketeko bela zabaldurik, hau da mamutzarraren gainetik uraren larrua ebakitzen brankako mastan. Santiago gurutze handia masta

nagusiko belan josia, eta beste bela eta soken ugariarekin armiarma zirudien.

Hantxe brankaldeko gazteluan zeuden tutulari eta atabalariak soinujotzen eta errepikatzen danborrean ahal zuten indar guztiakin irteera ospatzen eta lonbardariak ababorreko eta istiborreko kainoiei zarata eta keak eraginarazten. Bi apaizak gurutze bana eskuetan bedeinkazioak ematen, eta aldamenean Magalhães erregearen estandartearekin.

Une batean soilik izan zen horrela, zeren Fernão berehala desenbarkatu egin baitzen testamentua zinatu behar baitzuen eta emazteari azken agurra eman. Lemazain Esteban Gomez Pilotua. Tutuak, eta oihuak. Algara etengabea. Bazihoan Guadalquivir ibaian behera *Trinidad* eta honen popaldetik *Concepción*, *Victoria*, *San Antonio* eta *Santiago*, bertako eskifaiak ababor eta istiborreko kareletan Triana aldetik eta Sevillako arenaletik agurtzen ari zen populuari begira.

Azkenean Magalhãesek lortua zuen hainbeste desiratua eta hainbeste arrisku kostatako ametsa erdibetetzea. Armadako Almirantea zen Moluketako irlen bidean, baina Kanariar irletatik ekarrarazi zuten Fonseca apezpikuaren seme bastarta omen zen Juan de Cartagena eta kapitain izendatu conjunta persona gisara, azkenean istilu eta sesio sortzaile zoro izatearen aitzakian lehorrean gelditu behar izan baitzuen Magalhãesek adiskide omen zuen Ruy Faleiro astronomo jakintsu portugesaren ordeaz.



Alabaina, Manuel errege portugésaren Sevillako kontsulak, Albaro da Costak, engainuz bereganatu nahi izan zuen eta asmatu espedizioaz amore eman zezan makina bat kargu agindu zizkion, baina etsiturik zen bere herritarrekin Fernando eta Karlos errege gaztearekin fidaturik proposamen eta tentazio guztiei ezezkoa eman zien. Ondoren haren espioiek eta esbirroek Sevillako karrika estuetan behin baino gehiagotan ezpataz akabatu nahi izan zuten, baina bere bi bizkartzain malaysiarren arretari, indarrari eta berak ezpataz zeukan abilidade eta ohiturari esker libratu izan ahal zuen zauri axalezko batzuekin bakarrik.

San Juan de Aznalfarache eta Coria herrien paretik marearekin igaro gintuzten inguru haiek ongi ezagutzen zituzten pilotuek, hondoa jotzeko arriskua baitzen zenbait parajetan eta San Lúcar de Barramedako portuan Medina Sidoniako dukearen gaztelu aurrean muilatuz bota genituen aingurak Kapitan Jeneralaren zain. Begiratu eta ikertu genuen berriro sotoan zeuden erreminta eta elikadura guztiak, eta ohartu ginen ibiliak zirela gauez *Las Mulas* izeneko portuan lapurrak. Berriro despentsa osatu beharrean aurkitu ginen. Halaber esnea eta haragi freskoa izatearren behi bat, oilo dozena, ardi eta untxi batzuek ezarri genituen Noeren arka zirudien soto hartan.

Jakingo duzu San Lúcar itsaso ozeanoan sartzeko portua dela, 37 gradu latitudeko, eta San Bizenteko lurmuturretik 10 legoara kokaturik dagoena. Eta hemendik Sevillara 17 gradu eta 20 legoa direla.

Egunero joaten ginen bateletan *Nuestra Señora de Barrameda* izeneko elizara meza entzutera eta iritsi zenean Fernão Magalhães, San Lúccarrera konfesarazi zituen denak, eta borondatez ala ez, soldata ordaintzeko baldintza betebeharreko baitzen, marinel guztiek hustu zituzten bertan beren bekatuen zakuak. Mandamentu guztiak hautsi ohi izan dituzte itsasturiek, orotariko jendea baita beraien artean, baina seigarren kontrakoak ziren gehienak. Eta Kapitan Jeneralak andre ausart batzuek nahi arren enbarkatu eta saiatu, debekatu egin zuen emakumerik sartzea untzietara.

Igo zen itsasontzi bakoitzera, eta eskifaiaren izen zerrenda osoa irakurrarazi zion berriro eskribauari. Ez zen inor falta. Denak zeuden zegokien lekuan ezarritako eginbeharra betetzeko prest. Kapitainek eskatu ziotelarik Fernão Magalhãesi zein zen arruta eta derroteroa edota non zeuden portulanoak, modu txarrean erantzun zien berak zituela eta aski zutela bere gibeletik nabigatzearekin beti, popaldeko kriseiluaren argiaren atzetik gauez. Larguen en el nombre de Dios, ustedes síganme y no me pidan más cuenta.

Ez zuen erantzun hark inor pozik utzi, eta partitu ginen bata bestearen gibeletik, bada asteartez irailaren 20an hegomendebaldetik jotzen zuen haizearekin Santiagoren gurutzadun belak airean ongi tenkaturik. Urrunean ikusi genituen lehenik Cádiz-eko hiria eta San Sebastiangoz gaztelua, *La Caleta* hondartza eta laster Afrikako kostak galdu genituen bistatik.

Otorduetan despentsariarekin eta kozinariarekin biltzen nintzen, azken hau itsasontziko inportanteenetako baita eltze-uharteko errege, eta eskifaiako bakoitzari zegokion errazioa ongi neurtuta banatzen zen. Gaspar Quesada kapitainak, Santxo Heredia eskribauak, João Carbalho pilotuak, Hernando Bustamante barberuak eta ni neuk popaldeko gazteluan egiten genituen gure otorduak, nabigazioaren martxa eta beste komentatuz; Juan Akurio Bermeoko kontramaisua arduratzen zen bitartean untziaren martxaz eta gorabeheraz.

Bakoitzak itsasoan izan zituen arazoak eta abenturak kontatzen zituen. Carbalho zen ibiliena Indietako partean, eta neuk Afrikako gurutzada eta desastreak ere kontatzen nituen, hala nola Itsasoko Etxean irakasle pilotuek euren esperientziak kontatzean agertzen zuten jakituria. Gehien laket izan zitzaidala Sebastian Gaboto genoarra, Ternua aldeko itsas bidaiak kontatzen zituenean, baina Nuño Garcíaren derrotak marrazteko antzea eta abilidadea pergaminoetan ere izugarri estimatzen nituela.

Sotoko ardorik onenak zerbitzatzen zigun batzuetan Juanillok, Carbalhoren hamabost urteko semeak, eta bestetan Perutxo bermeotar txoak. Hauek elkarren oso lagun egin ziren eta batek atabala hartu eta besteak panderoa eta ordu lasaienetan brankako trinkete ondoan entzun nituen kantari eta soinua jotzen. Juanillok kanta sefardi bat zeukan beti ahoan amaren ahotik ikasia, bere ama Granadatik bidalitako juduen artekoa baitzen, honela zioena:

*A la una yo nací,  
a las dos m'engrandecí.  
A las tres tomí amante,  
a las cuatro me cazí.*

Arrunt gustatu zitzaion Perutxori kanta eta bere modura euskaraz moldatu zuen, panderoa jotzen zuen bitartean:

*Sortu nintzen bakotxean eta  
bietan batixatu,  
Enamoratu hiruretan eta  
lauretan esposatu.*

*Islas Afortunadas* deitu uharteetara iritsi ginen jada 60 legoa lehenago Tenerifeko mendebaldean altxatzen den Teide izeneko mendi gora ikusten genuelarik largabistaz, zeina uztaila eta abuztuan soilik igo daitekeen, bestela elurrez jantzia baita beti. Bertako gailurretik inguruko zazpi uharteak ikus daitezkeela, diote. Hala bada, arribatu ginen hona 26an, eta bertan 28 gradutan muilatu eta bateletan joan ginen haragia, ura, zura eta barazki eta fruta freskoen bila. Upategia bete genuenean islaren hegoalderantz Punta Roja deitu aldera abiatu ginen han arrantza onak egin zitezkeela esan baitziguten hango arrantzaleek. Kostaz kosta joan ginen bertara bi egun igaro genituela sotoa betetzen eta arrai fresko frijitua jaten.

Urriaren hiruan, berriro haize onarekin belarako hego-mendebalderantz jo genuen. Portugesen menpe zeuden Cabo Verdeko uharteak istriborrean eta Afrikako partean zegoen Ginea ababorren genituela jaitsi ginen 8 gradutan zegoen Sierra Leona deitu mendi baten pareraino. Eguraldi orotarikoa izan genuen. Mendebaleko haize kontrestak, bonantzak eta kalmak. Zeru guztia isuri, babazuza eta euri hirurogei egun segidan. Haize bortitz eta jaidura handiak. Euria ari zuenean haizeak jotzen zuen gupidagabe eta eguzki zenean barealdia kiskalgarri gertatzen zen.

Marrazo handiak inguratzen gintuzten eta hortz ilara zorrotz eta izugarriak erakusten, baina ohituta geunden halakoetara eta burdinazko amu gogorrekin harrapatu genituen batzuek, bai eta ongi zatikatu eta gero marmitakoetan egosita jan.

Maiz ikusi genituen ere San Telmoko suak Trinidad itsasontzi kapitainaren masten puntetan eta gau batez luzaro bi orduz iraun zuten gau iluna argitzen urdin kolorez, marinel batzuek jadanik uste zutelarik munduaren akabera zetorkiela gainean, erdi itsuturik gelditu baitziren une batez, izuak hartuta, baina derrepentean haizeak eta itsasoa baretu egin ziren. Ekuatorea pasatu genuela ohartu ginen Ipar izarra desagertu egin baitzitzaitzaigun.

Mota guztietako txoriak eta arrainak lagundu ziguten bidean. Izatz gabeko hegaztiak eta arrain hegalariak ikusi genituen. Xit grazios eta eder dira euren mugimendutan, baina egia esan, hegalariak diruditen arren ez dute hegorik, baizik

eta beren bularreko hegatsak belatxoan antzera urgainean doazi haizeak eramanez. Hego-mendebalderantz gindoazela eta portugesen lurraldeak ziren Brasileko kostara ailegatu ginen azaroaren 29an ozeanoaren zabala bi hilabete eta bederatzi gau eta eguneko nabigazioaren ondoren igarota.

*Cabo Branco* 7 gradu hego latitudean zetzan deitu lurmuturrera desenbarkatu genuen lehenik, bertan tapir haragia, oiloak, batatak, ananak, azukrea eta fruta guztiz gozoak trukatu genituelarik gure bitxikeria ezteus batzuegatik. Amu bategatik bospasei oilo, orraze bategatik bi ahate, ispilu edo guraize batzuegatik hamar pertsonentzat adina arrain. Handik gero kostean esaten zuen bezala Quesada kapitainak, kostaren luzeran nabigatuz arribatu ginen Santa Luzia deitu genuen lekura, abenduaren 13a baitzen. Latitudea 23 gradukoa zen. Eguzkia bere gailurrean zegoen eta beroak jotzen zuen zernahi kixkalteko moduan. Zazpi brasatan muilatu genuen barnean, baina kanpoko aldean 20 brasa badira.

Hamahiru egun eta gau eman genituen bertan. Erabat larru gorrian zebiltzan gizonak eta andreak, batzuek gerrian papagai luma zintzilik alua eta pitoa estaltzen zutelarik. Soinak tindaturik eta tatuatuak zeramatzen, andreak titiak airean naturaltasun osoz, eta aurpegia marra gorritz eta beltzez pintatuak. Emazte ezkonduak karga handienak garraiatzen zituzten, baina gazteak sexu harremanetan oso libreak ziren. Ama batek bi alaba eskaini zizkigun behin ganibeta zorrotz baten truke.

Oihanak txit hertsia ziren eta uhartez inguraturik baikeunden bertakoek hogeita hamar arraunlari eraman zitzakeen batela luzeak, zuhaitz enbor zabal hustuez eginak, kanoa izenekoak eta arrauna karratuekin higiarazten zituztenak kanta errepikakor baten konpasean. Ez ziren lurrean etzaten loak harrarazteko, aidean bi makilen artean eskegita zeuden hamaka izeneko sare batzuetan baizik bohio deitu txabola handietan. Han agintzen zuenari kazike deitzen zioten.

Paraje hauetako ixtorio ugari kontatu zizkigun João Carbalho kapitainak, ezagutzen zituenez lurralde eta plaia hauek lau urtez egona baitzen portugesekin. Harremanean esan ditudan hitzez at beste batzuek ere ikasi genituen, adibidez, artoari *maiz* deitzen zioten, amuari *pinda*, labainari *takse*, guraizeei *pirame*, zintzarriei *itanmaraka* eta gauza bat oso ona zela adierazteko *tum maragathum*...

Haien artean agertu zen goiz batez andre eder bat zazpi urteko mutiko bapo baten konpainian eta João, João oihukatuz gerturatu zen Carbalhorengana. Honi besarkada handiak eman eta maitasun keinu ikusgarriak egin zizkion jauzi batez besoetara igo zitzaizolarik.

Honek aitortu zigun Brasilen egondako beste bidaiari sexu harremanak izan zituela hango neskatil birjin batekin eta egia esan antza handia zeukaten aitak eta semeak. Baimena eskatu zion kapitainari eta untzira igo zuen berarekin bidaiari egin zezan, eta kamainatxo bat prestatu zion bere gelan.

Horrela bildu ziren Perutxo eta Juanillo hamabost urteko paje gazteak zazpi urteko mutil koxkorrarekin, zeinak portugesez maiz errepikatzen zuen *meu nome é Joao como meu pai*. Eta festa handiak egiten zuten atabala eta panderoa joaz elkarrekin oso alaiak baitziren. Juanillok eskatzen zionean, *irmão canta algo*, honek beti kanta bera abesten zuen:

*Sobe, sobe, marujinho,  
Àquele mastro real,  
Vê se vês terras de Espanha  
As praias de Portugal.*

Eta Perutxok esan zion oso gustukoa zuela kanta hura kantatzea gabian egotea suertatzen zitzaionean largabistaz ostertzera begiratzuz, eta ezagutzen zituela gainera bi aldaera, bat ahots erabat erakargarria zeukan Donibane Lohitzuneko marinel bati entzuna, zeina Ternua aldean ibilia zen balearen ehizean, eta bestea Ondarruko bati, zeina Andaluzia aldean ibilia baitzen, eta honelaxe kantatu zituen bi ereziok:

Hona Lohitzunekoa:

*— Ene muthilik ttipiena,  
Ene muthilik maitena,  
Habil harat, habil hunat,  
Mastañoaren puntalat,*



*Mastañoaren puntalat eta  
ageri denez leihorra.*

Eta Ondarrukoa :

*Palogaineko, palogaineko  
palogaineko puntara!  
An dago Karmen lutoz beterik  
almuedazala bordatzen.*

Santa Luziatik sarrera ona daukan Bahía de los Reyesera joan ginen, eta urtearen azken egunean, San Silbestren, eguzkiaren altura ohi bezala hartu zuen pilotuak eta deklinazioa 22 gradu eta 8 minutukoa zen eta altura 25 gradu eta 23 minutu.

*Victoria* itsasontziko izan zen espedizio honetako lehen hila. Anton Salomon siziliar maisua aurkitu zuten larru xortaldian marinel batekin Ginea aldean, ohikoa zena bestalde, baina gertakizuna salatu ziotenean Magalhães-en kapilaua eta inkisidoreak baino gogorragoa zen Pedro de Valderrama fraide dominikoari, honek gero eta bakartiago zebilen Kapitain Jeneralaren kazkoa berotu zuen, infernuaren mehatxuaz.

Santa Luzian lehorreratu zirenean Meza eman ondoren judizio batean epaitu zituzten *crimen nefando* hartan erori zirelako. Biak, Salomon eta marinela sotoko kartzela heze eta ilunean ezarri zituzten gogorki kateaturik, eta Salomoni burua moztu zioten ezpataz itxurazko epaiaren ondoren, mundu

guztia rigore haren gehiegikeriaz, portugésaren harrokeriaz ahopeka mintzo zelarik.

Juan de Cartagena, Armadako behale orokorra zenak, eskatua zion derroteroa behin baino gehiagotan Magalhãesi, Erregerekin sinatu kapitulazioetan azpimarratzen zenez behartua zegoela Kapitain Jenerala arruta besteei adierazteko, baina honek ez zion arrazoi onik ematen, esan bezala, eta orduz gero gauero Kapitain Jeneralak beste untzietakoei bezala nobedadeak ematea eskatzen baitzien, eta, Dios vos salve, Capitán General, diosalarekin tratatua izatea nahi baitzuen, gaztelarrak capitán beste hornidurarik gabe deitzen zuen, jeneralaren haserrea areagotuz.

Halako batean eztabaida sutsuaren erdian Magalhãesek zamarratik heldu zion Cartagenari eta esan zion, *daos preso*. Honek laguntza oihuz eskatu arren inor ez zen mugitu, eta oinetan zepoaz kateatu ondoren preso bidali zuen Luis de Mendoza Victoria untziko kapitainarengana, eta Antonio de Coca Armadako kontablea bidali zuen *San Antonio*-ko buru bezala. Abenduaren 13an Coca aldatu zuen eta honen karguan bere iloba Alvaro de Mezquita portugesa ezarri.

Santa Luziako badia miresgarrian hamahiru egun igaro ondoren beti kostaz kosta iritsi ginen ibai izugarri zabal zen batera abenduaren 27an. Bokalak 17 lekua ditu eta Ekuatoretik 34 gradu Hegoalderantz dago. Bertan sartu ginen pentsatuz handik zitekeela beste Ozeanora igarotzeko kanala, Hegoko Itsasora, baina ura beti geza zela ohartuko baikin

erabaki genuen hura ez zela bidea eta Santa Maria deitu genuen lurmuturretik hegoalderantz jarraitu genuen.

Mila bederatzi ehun eta hogeitarren urteko urtarrilaren hamarrean kosta hondartzez betetakoaren parean genbiltzan, non mendi txapel itxurakoa ikusten genuen eta izena *Montevideo* deitu genion eta beste batzuek *Santovideo*. 34 gradu genituen Ekuatorearen azpitik.

*Kosteando* beti eta tormenten bat edo beste sufrituz jaitsi ginen, gero eta hotz handiago egiten zuelarik, pasartearen bila. Santu guztiei gomendatu ondoren ekaitza baretutakoan eta 49 gradu Ekuatoretik hegoaldera, eta 71 mendebaldera iritsi ginenean badia babestu batera, Kapitain Jeneralak erabaki zuen han gelditzea negua pasatzeko eta lekuari *San Julian* deitu genion, San Julian ospitaletsuaren eguna baitzen, martxoaren 31.

Egunak gero eta laburragoak ziren eta gauak luzeago. Gure lurretan udaberria hastear bazen hemen negua zetorkigun gainean. Elikadura bukatzen ari zitzaigun, eta jan- edarien errazioak txikitzea agindu zuen Magalhãesek.

Erramu igandean, gauza jakina denez Jesukristo Jerusalem asto baten gainean triumfalki sartu egunean urte hartan apirilak 2 zituela, San Juliango badian aingurak egotzi genituen, ondarrabitarrek dioten eran muilatu egin genituen zunda aurretik bota eta hamar brasatan. Handik astera gonbidatu zituen bazkari batera kapitainak Magalhãesek, baina bere iloba Mezquita bakarrik joan zitzaion.

Apirilaren hasieratik abuztuaren 24ra arte, San Bartolome eguna, han gelditu ginen. Geunden lekura inguratzen zitzaizkigun indio asko, erdi larrutxik, kainaberazko uztaiaz eta zurezko gezi harrizko puntadunekin, korrikalari arinak eta igerilari apartak, ur azpian denbora luzean irauten zekitenak ziren.

Beste okasio batean gauez batelean joan ginen San Antonio itsasontzira hogeita hamarren bat. Hauen artean Quesada nire kapitaina, Mendoza, Coca eta Juan de Cartagena zeuden hitzarturik. Ni ere tartean nengoen. Garbi zegoen Magalhãesek ez zekiela nondik jo behar zen beste ozeanora igarotzeko, non zegoen hertsidura, eta batzuek espedizioak porrot egin zuela kontsideraturik Espainiara itzuli nahi zuten. Soka eskailerak arin igo ondoren popaldeko gela batean sartu eta Mezquita preso hartu genuen.

Bi gizonak egin ziguten kontra asaldatuoi. Juan de Elorriaga maisuak eta Pedro de Valderrama kapilauak. Goiz hartan izana nintzen Elorriagarekin hitz egiten jakinaren gainean jarriz nola Armadako kapitain, maisu, ofiziale eta pilotuek nahi zioten berriro eskaera bat egin Kapitan Jeneral jaunari eman ziezaien derrota.

Valderramak esan zion Quesadari latinez, *cum sancto sanctus eris, e cum perversis perverteris*, eta honek, oharturik 17. psalmuaren 26 eta 27. bertsikuluen nahasketa zela hura, euskaraz santuekin santu eta gaiztoekin gaiztotu egingo zara, erantzun zion ea nork zioen hori, Dabid profetak ihardetsi zion, eta irkaitzez ez zuela hura ezagutzen esan zion besteak.

Juan de Elorriaga bere kapitainarekiko leialtasunez esan zien Jainkoaren partetik eta errege Karlosetatik eskatzen ziela, arren, itsasontzitik irten zitezenez, ez zela eta garaia gizon armatuekin ibiltzekoa, halaberki preso hartu zuten kapitaina libre utz zezatela. Quesada, aldiz, erabat haserreturik, puñal zorrotza gerritik atera eta oihukatuz, nola liteke zoro honek egindako plana pikutara bidaltzea guri, eztarrian sartuz behin eta berriro zauriturik lurrean erdi hilik utzi zuen Elorriaga. Quesadak agindu zuen *Concepción* itsasontzira eramanez zezaten, eta ni joan nendin *San Antonio* untziaren kargu egitera. Pena handia sentitu nuen arren bazekien zer zetorkiokeen Elorriagak eta horregatik preseski pasatua nion abisua.

Asaldatuok untzi guztien jaun eta jabe ginela ikusita, egun hartan zegokigun errazioa handitu egin genuen marinelak oso poztu zirelarik, eta enbaxada bat prestatu zen Magalhãesekin hitz egiteko erregearen Instrukzioak bete zitzen. Baina beste enbaxada bat buru Gonzalo Gómez de Espinosa Armadako alguazil Nagusia agertu zitzaigun, Magalhãeseren gutun bat zeramala, non gonbidatzen baikintuen elkarrizketa batera. Espinosaren atzetik sei gizon armatu zihoazen aurpegia estaltzen zuten kapa luze batzuek gainean.

*Victoria* untzira igo ziren, non Mendoza kapitainak bere ofizialekin itxaroten zituzten. Espinosak erreberentzia txiki batez Magalhãeseren gutuna eman zion. Hasi zen irakurtzen hura eta momentu batean oharkabe zelarik, Mendoza irribarretsu, honi daga eztarritik sartu zion, eta sastada batzuez josi eta bat-batean akabatu zuen Espinosak. Une berean

agertu zen beste hamabost gizon armatuekin Duarte de Barbosa eta denen artean Victoria itsasontziaz jabetu ziren.

Biharamunean *San Antonio* eta *Concepción* errenditu egin ginen eta Magalhães-en mendeku zigorra etsaiekiko eta saria alde jokatu zutenekiko berehalakoa izan zen. Gaspar de Quesadaren buru moztea agindu zuen, zeina exekutatu baitzuen honen zerbitzari zuzenak, eta Mendozaren gorpuaren zatikatzea. Apirilaren 7a zen. Aldiz, Espinosari hamabi urrezko dukat eman zizkion eta honen kide bakoitzari seina, hala nola espedizioa bukatzean Quesadaren ondarearen zatia promestu zien.

Juan de Cartagena eta honen kapilaua, Pedro Sanchez de la Reina heriotza zigorrez epaitu zituen, baina gehiegizko iruditu zitzaion errege Karlosek Behatzaile Nagusi bezala izendatua eta Elizaren kargudun bat erailtzea, eta handik itsasoratzean lur lehor eta desertu haietan desterraturik uztea erabaki zuen, bizkotxa batzuek eta ardo zahato zenbaitekin. Berrogei baino gehiago baginen errebelioan, baina Magalhães azkarra baitzen eta bazekienez untzietan nahita nahiezko ginela ez gintuen akabarazi. Ordutik aurrera denok isil-isilik obeditu genituen agindu guztiak.

Inguruetako parajeak eta kosta esploratzen hasi ginen. Eguna laburra eta gaua luzea zen. Inor ez zen ageri inondikan ere. Egun batez ageri zitzaigun hondartzan digante bat larrutxik, kantari eta dantzari, eta hondarra buru gainetik isurtzen zuela. Masailak gorritz pintatuak zeuzkan eta begiondoak horiz. Oinak izugarri handiak zituen larruzko

abarka batzuetan sartuak, beraz, Patagão izenez bataiatu zuen Magalhãesek. Magalhãesek agindu zion marinel bati hurbildu zintzaizkion keinu eta joko berdinak imitatuz bake seinale moduan. Jaten eman zitzaion eta ispilu bat ere bere burua ikus zezan. Orroka eta espantuka hasi zen bere burua ikusi zuenean ispilua bestaldean. Mantsoki inguratu ziren beste batzuek, denak bilutxik zerua eri batez seinalatuz, dantzan eta kantaketan, adierazi nahian edo zeruetatik jaitsitako jainkoak ginela. Trukatu genituen oreinak antzeko abere lepoluze batzuen eta itsas otsoen haragiak, zeinez elikatzen baitziren gure ispilu eta labaina eta bizkotxa kaxkar batzuegatik. Txabola batzuetan bizi ziren eta hauek abereen larruz tapatzen zituzten hala nola gerripekoak estaltzen. Jale handiak ziren eta alderraiak.

Aste batzuen buruan gazte eder batzuek agertu zirenean Magalhãesek erabaki zuen horrelako bi, esklabo gisara oparitu behar zizkiola Errege Karlosi. Eskaini zien itsasontzietara eramatea, baina opariak beraiek baino askoz ere txikiagoak eta titi eroriak zituztenen emakumeen esku utzi ondoren hartu zituzten geziak eta arkuak gurekin ontziratzeko. Burdinazko zepoak ere erakutsi zizkieten eta nola eskuak okupatuak zituzten zangoetan zeramaketeela seinalatu eta ezarri zietenean eta ohartu ezin zirela mugitu, furiek harturik hasi ziren orroka. Emazteak harrapatzea eta bahitzea ezina egin zitzairen, zeren eta beste patagão batzuek abisua pasaturik ihesari eman zioten eta oihanean gorde.

Untziak erreparatzen zeuden bitartean hegoaldeko kostak esploratzera abiatu zen untzietatik ttipiena, eta

maiatzaren 3an *Santiago* João Serrao kapitainak zuzentzen zuen itsasontzirik tipiena *Santa Cruz* deitu zuten ibaiaren bokalaren parean harkaitzen kontra bota zuten haizete ikaragarri batzuek, eta untzia txiki-txiki egin. Halere Juan Negro deitzen zen kapitainaren esklaboa ezik beste guztiak salbatu ziren. B

i marinel oinez ehun legoa ibil ziren besteei gertatutakoa kontatzearren. Bi hilabete igaro behar izan zuten eskifaiakoak erreskatatuak izan zitezen baino lehen. Gelditzen zitzaizkien jan-edari apurrak beste itsasontzietan sartu zituzten, eta Magalhãesek *Monte Cristo* deitu mendi gailurrean gurutze bat ezartzea agindu zuen. Serrano *Concepción* untziko kapitaina izendatu zuen, eta Duarte Barbosa *Victoria* untzikoa.



## V

### TERRAE INCOGNITAE

**N**EGU luzea pasatua zen, non Magalhães bere bortizkeria eta gerra esperientziarekin irabazle gertatu baitzen, gerra isil hartan garaile, eta jakinik behar zuela Martin Bohemiakoaren kartaren arabera beste Ozeanorako pausu bat han nonbait abuztuaren 21ean altxatu genituen aingurak eta kableak, ez noski bezperan denak Meza santua eta komunioa hartu gabe. Bagenituen 52 gradu Hego latitudean eta 66 gradu Mendebalde longitudean. Abuztuaren 24a zen.

Hegoalderantz jo genuen berriro, bada, baina laster denak hondoratzeko arrisku handitan izan ginen. Orain jada lau untzi bakarrik ginelarik, eta kosteando ohi bezala iritsi ginen aski unaturik *Cabo de las once mil vírgenes*, Hamaika mila neskatilen lurmuturra deitu zuten parajera, urriaren 21a baitzen, Santa Ursularen eguna.

Jakingo duzu nola santuen bizitza liburuan kontatzen den 451. urtean Atila, Hunoen erregea, maitemindu egin zen kristau erlijioa hartu zuen Ursula deitu neskatxaz. Eta honek ez baitzion bere birjinitatea eskaini nahi izan enperadoreari, hark gerra suntsigarri eta krudela hasiko zuela kontra aginduzion. Hura eta berekin zihoazen hamaika mila dontzeila, leiendak dioskunez, bortxatu nahi izan zituen baina Jainkoak haien xahutasuna kontserbatuz birjina mantendu zituen martirisatu egin zituzten arren.

Ursula Koloniako katedralean datza hobiraturik harrizko hilobian inskripzio batekin, baina nonbait jakintsu humanistei irakurri diet, eta diotenez hamaika mila nestatila delako interpretazioa marra baten irakurtze txar baten ondorioz besterik ez dela, zeren hamaika milaren ordezt, nola zitezkeen hainbeste garai haietan, hamaika besterik ez ziren, antza. Dena den zeruetako birjina eta martiri koru guztiak prest omen zeuden heien errezibitzeko pazientziaz eta umiltasunez sufritu zuten martirioa bukatu zenean.

Bagenituen 52 gradu Hegoaldeko latitudean eta 70 gradu Mendebaldeko longitudean 1520ko azaroaren lehenean, Magalhãesek Todos los santos deitu zuen kanal sarrera zabal batera iritsi ginenean, nondik sarrarazi gintuen lau untziak.

Lehen hertsidura igarotakoan hegoaldeko hondartzetan kea zabaltzen zuten su handi batzuek ikuskatu zituen Magalhãesek eta *Terra de fogos* bezala bataiatu zuen. Ekialdeko bokalea igarota lau untziak sartu ginen kanal estu batetik, ekimendebalderantz badia uhartetsu eta hondartsu batera, non

muinoak altura gutxikoak ziren ia zuhaitzik gabe, belar laburrak harkaitz borobil batzuen artean, zerua urdin eta aratza, egurats lehorra eta hotz handia egiten zuenera arribatu arte. Paraje hura *San Bartolome* deitu zuen, azaroaren 11 baitzen.

Bigarren hertsidura igarota kanalak erabat hegorantz jotzen zuen, paisaia erabat aldatzen zen, mendi altuak, pikupikuak eta gailurra elurtuak ageri zitzaizkigun. Soroak hezehezeak eta zuhaitz eta belardi ugari. Arboladi benetan bikainak. Nabigatzen genbiltzala beste mendi garai batzuek kanala bitan erdibitzen zuten. Bi aurrera bidali zituen istribor aldera eta beste bi ababorretik jarraiki genuen. Bi espedizioetarik batek aurkitzen bazuen itxituraren irteerara itzuli eta bereizte lekuan itxaron behar zituen beste biak.

*San Antonio* eta *Concepción* untziak bidali gintuen ikerketa egitera *Trinidad* eta *Victoria* zain gelditzen zirela. Gauean hasi zen haizete zakar bat bere furia guztiarekin. Jakizu marinela batentzat begiak erne edukitzea bezain garrantzizkoa dela ongi aditzea, belarria ona edukitzea, zeren eta honek adierazten dizun haizearen martxaren nondik norakoa, nolakoa izango den. Orain itsasoan ohikoa den ixtorio triste bat kontatuko dizut.

Sekulako euri jasa etengabeek harrapatu gintuzten, ura goian eta ura behean, mendiak bezain altuak ziren olatu batzuek besteen kontra altxatzen ziren, zoraturik bezala zebiltzan. Ababor aldera etzanda zihoan gure untzia belak zabalik eta pilotuak lemaren kolpe batez istriborrera jo zuen.

Pokak, trinketeko belatxoak, masta nagusiko belak, latina eta beste denak haize putzik gabe ia dardaraz jarri ziren, olatu izugarriak sartu ziren brankatik kubiertan tenk eutsita ez zeudenak arrastaka popalderantz eta masten kontra eramanez eta bazirudien ondoratzeraz gindoazela, baina lipar batean pokak, trinketak eta mesanak haizea hartu zuten, zerbait arraroa gertatzen zela masta nagusian konturatu ginenean.

Berga bat trabatua zegoen eta haizearen kontra zebilen, untxiari oreka galduaraziz. Gero eta furiakanak bortitzago astintzen gintuen eta apenas aitzinatzen genuen modu deserosoan erabat. Belen, soken eta kableen soinua eta ekaitzaren ziztuak gero eta beldurgarriagoak ziren. Derrepentean marinel bat masta nagusiko soka zurubietan gora zihoala ikusi genuen tximinoak bezain arin tximista artean. Eskifaia guztia gelditu zen gora begira, aho zabalik, zer egiten zuen ikusten. Gora eta beherako balantzan bazirudien une batzuetan itsasoak eraman behar zuela bere uhinekin batera. Bergaren gainean zebilen, labaina bat atera zuen poltsikotik eta hasi zen bela trabatzen zuen soka ebakitzen, baina une batez tximisten artean ikusi genuen nola sokari helduta dantzan zegoen hortz tartean labaina zeukala. Entseatu zen soka gora igotzen baina olatu izugarri handi batek untxia arriskutsuki inklinatu zuen, haize kolpe batek mastaren belak birarazi zituen eta soka zurubien kontra kolpatzen zuen etengabe. Itzal baten modura galdu zen gauean, itsasoan pulunpatuz bertan aurkitu zuelarik bere hilobia marinel ausart hark.

Tormenta honek 36 ordu segidan zigortu gintuen krudelki, aingurak jaitsiak genituen eta haizeek eta olatuek arrastaka eraman gintuzten badia barreneraino. Beste kanal hertsia gotik entseatu ginen baina hau ere erabat itxita zegoen. Beraz albiste txarrekin bira egin genuen, tristuraz, baina bildu ginenean iritsi zen beste untezi bat bonbardak tirokatzen su eta ke. Pausua aurkitua zuen, antza, itsasarte osoan ura ez baitzen geza, gazia baizik.

Duarte Barbosak gidatzen zuen ekialdekoa ikertu ondoren alferrikakoa zela handik jarraitzea eta itzuli egin zen. San Antonio urrutia joan zen eta hirugarren egunean, azaroaren 8an, itzuli egin zen ere baina ez zuen Magalhães aurkitu esandako biltze lekuan. Mezquita kapitainak, Magalhães-en lehengusuak agintzen zuen baina Esteban Gomez pilotuak pentsatu zuen hertsidura, bestalderako pausua jada ezagutzen zutenez, eta ez zituztenez Moluketaraino joateko baldintzarik aski zela. Itsasturi akitu eta desesperatuak asaldu zituen, kapitaina preso hartu eta Espainiara itzuli zen, horrela hiru untezi bakarrik gelditu ginelarikan.

Magalhãesek pentsatu zuen hondoratu egin zela nonbait eta bila atera ginen nonbait arrastorik aurkitzen ote genuen, baina egun batzuek pasa eta ez zenez agertzen inondik, topatzeko esperantza galdurik, erabaki zuen hiru unteziak aurrera egitea Erregearen mandatua betetzearren.

Halere, kostako puntu nabarmen batzuetan ezarrarazi zituen gurutze batzuek eta hauen pean marmita baten

barrenean gutun bat eta mapa bat marraztuta, non seinalatzen zuen hartu zuen arruta, jarrai ziezaioten.

*San Antonio* untzia, geroago jakin genuen bezala, Sevillara gu baino lehenago iritsi zen, 1521eko maiatzaren 6an. Eta berehala presentatu ziren agintarien aurrean egindako joan etorriaz mintzatzera. Kontratazio Etxeko ofizialeengana bideratu zituzten eta Alvaro de Quesada kapitaina kartzelatu egin zuten eta bere ondasun guztiak bahituak gelditu ziren espedientea ideki, galderak egin, argitu, eta erabakitzen zen arte.

Halaberki, marinelen adierazpenen ondorioz Magalhães-en familia osoa ezarri zuten zaintzapean, Portugal aldera ihes egin ez zezaten. Erreboltako buruak ere, Gómez, Guerra, Chinchilla eta Angulo preso ezarri zituzten eta Burgoseko presondegira eramane. Dena den, ni itzuli nintzenean eta egindako galdeketei erantzun nienean zintzoki, ondasunak itzuli egin zitzaizkion Quesadari eta denak aske gelditu ziren. Baina honetaz aurrerago mintzatuko natzaizu.

Uharte harritsu z betea zegoen kanala eta batzuetan ababorretik eta bestetan istriborretik joaz aurrera gindoazen. Aurkitu genuen ere goiko mendietatik jaisten zen ur ia jelauez erreka bat, zeinaren inguruan sardina pila bat zebiltzan saltoka, ardorean. Bota genituen amuak eta sareak. Harrapatu genuen sarda mordoxka, batzuek jan eta beste batzuek upeletan sartu genituen urontziak ere bete genituelarik. Karramarroak, muskuiluak, lanpernak eta bestelakoak ere

baziren hala nola belar jangarri eta gozoak. Ibaiari, *Rio de Sardinhas*, deitu zion Magalhãesek.

Hasierako badia zabal eta lur baxuei mendi altu eta elurtsuek eta hertsidura handiagoak agertzen joan zitzaizkigun. Azken hertsiduratik itsaso zabalera irtetzerakoan bokalaren ababor aldera lurmutur handi bat ageri da uharte batekin, eta honi ere izena jarri zion Magalhãesek, *Cabo Hermoso* eta *Cabo Deseado* deituz, azken finean bozkarioz beterik baitzen. Lurmutur hauek Hamaika mila birjinen lurmuturraren alturan aurkitzen dira.

Mila bostehun eta hogeigarren urteko azaroaren 27an, beraz, 37 egun nabigatu ondoren mendi tartean kanaletik azkenean, Magalhãesek izena eman zion hertsiduratik iritsi ginen Océano Pacífico bezala bataiatuko zuenera bertan ez zuelako tormentarik pairatu, eta hasieran Hegoko Itsasoa bezala izendatua zenera. Bokalaren ababor aldetik kosta pikua eta iluna ageri zen, eta inguruan uharte batzuek euripean, istribor aldetik, paraje bare baina erabat lanbrotsuak.





## VI

### DE MOLUCCIS INSULIS

**A**ZKENEAN hiru untzik hertsidura luze eta paraje hotz eta desatsegin haiek nahiko lan eta joan etorriez igaro ondoren, laurehun legoa baino gehiago, branka ezarri genuen ipar-mendebalderantz begira. Alegia, *Trinidad*, *Victoria* eta *Concepción* abiatu ginen, NW markatzen zuela iparorratzak, ahalik eta azkarren uste baino zabalago zen ozeano hartan.

Ia bageneraman urtarrileko hilabete osoa nabigatzen arruta berean, ipar-mendebalderantz esan dudan bezala, eta ez zen uharterik inondik ageri. *San Pablo* izan zen bistaratu genuen lehena, zuhaitzez ongi hornitua baina biztanlerik gabea, eta aurrerago, otsailaren 4an marrazoz betea zegoen parajera iritsi ginen, zeina deitu baitzuen, Isla de los Tiburones, baina hemen aurkitu ez zenez, ez janik, ez edanik,

ez inolako kontsolamendurik, *Isla de los Desventurados* bezala bataiatu zuen.

Martxoaren 6an jadanik 13 gradu Iparreko Latitudean ginela uharte batzuek aurkitu genituen, non *kanoa* pila bela latinekin ikusitakoan *Islas de las velas latinas* deitu zuen hasieran, baina nola hango gizakiek, hamar bederen bazihoazen bakoitzean, igotzen ziren untzietara tximinoak bezala eta ikusten zuten eta ahal zuten guztia harrapatu eta eramaten zuten berehala ezer esan gabe, *Isla de los Ladrones* bataiatu zuen gero. Hain ziren abilak, non lipar batean batela lapurtu zioten untziari eta harekin ihesi joan.

Ez zuen Magalhãesek hau oso gogoko izan eta berrogei gizon armatuz mendekua prestatu zuen. Desenbarkatu ziren eta izugarritzko sarraskia egin zuen haien artean, berrogeita hamar etxe errez eta hamaika gizon erailez. Batela errekuperatu zuen Magalhãesek. Uharte hartako gizonak ez zuten geziak ezagutzen eta eskuekin erauzten zituzten beren soinetatik eta hilik zerraldo gelditzen. Guztiz bilutxik zeuden andreak, aluestalkia ezik ez zeramatera, zimetatik tiratzen ziren negar, oihu eta garrasi artean. Baina uharte hauek ihesi laster utzi behar izan zituzten ehun kanoek inguratu baitzituzten eta jarraika geziz eta harrika erasotu. Hala bada beste uharteetara arribatu ginen Garizumako bosgarren igandean, martxoaren 9an, eta honengatik *San Lázaro* deitu zituen.

Denboralearen ondorioz Mazagua izeneko uharte txiki batean muilatu genuen, non bertako buruzagiak harrera ona egin zion, Armadak behar zuenez hornitzerik ez izan arren,

esan baitzion bere ahaide batek bazuela elikadurarik aski eta prest zegoela laguntzeko hogeitaseko zegoen islaraino. Onartu zuen eskaintza Magalhãesek eta Zebú deitu uhartera iritsi ziren. Denboraldi baterako zertaz mantendu Armada lortu zuen bertan, bai eta kaperatxo bat egitea lehorreratutakoan, non Meza eman zen eta apaizak interpretearen bitartez kristau doktrina eta fede katolikoa esplikatzen zuten bertako biztanleei, eta nola kristau egiteko borondatea agertu zuten bataiatu eta kristau egin ziren mila indio baino gehiago bat-batean. Zeremoniaren ostean erregeak bazkari eder batera gonbidatu zituen Magalhães eta beste denok.

Alabaina, batzuek esaten genion ez fidatzeko sobera jende haiez, jakin baikenuen euren asmo ezkutua gure untziez jabetzea zela. Bazen ere zioenik Enrike, Magalhãeseren zerbitzaria, haserre handiz zebilela Duarte Barbosak eta Serranok gaizki tratatzen zutelako eta hauetako batek sesio batean perro deitu zuelako. Edozein mendeku hartzeko prest zegoela ikusiz hain nabarmen ageri zen kristau jendearen basakeria eta urregosea.

Bazirudien, ordea, leku aproposa zela faktoria bat bertan eraikitzeko, eta proposatu zuen Kapitan Jeneralak, errege hura kristaua zenez, beste uharteetako erregetxoaren buru egin zedin, baina hauetariko bik ezik ez zuten onartu proposamena. Batik bat Mactan uhartekoek ez zuten obeditu nahi atzerritarrek inposatu legerik. Orduan Magalhãesek prestatu zituen hiru batel eta hirurogei gizon armatu pentsatuz aski izango zirela

haiek bentzutzeko eta menperatzeko, Zebuko erregeak eta João Serranoren aholkuak kontutan hartu gabe.

Horrela bada ekintza arriskugarri eta ausartegiari ekin zion. Mactan uhartean desenbarkatu zuten, batzuek utzirik batelak zaintzen, kokatze harritsuagatik hondartzatik urrun samar gelditu zirenak, eta herrixka bat hutsik ediren zuelarik erre egin zuen. Orduan indio piloa agertu zen aieka batetik eta pelean trabatu ziren, eta gero bestetik multzo handi bat geziz, harriz eta lantzez erasotzen zituztenak. Egun osoan borrokan aritu ostean neke-neke eginak zeunden ilunabarrerako, munizioak bukatuta eta erretiratzeko agindua eman zuen Magalhãesek. Une honetan beste indio multzo handi bat agertu zen eta bortizki indar basaz erasotu zituzten lantzez eta harriz. Harrikada batek kasketa kendu zion eta geziz zango batean zaurituta lurrera erori zen, baliatu zutelarik unea gainera erortzeko, lantza batez zulatzeko eta bertan akabatzeko.

Sentimendu eta pena handiko eguna izan zen salbatzea lortu ahal izan genuen guztiontzat, gure arteko eztabaidak gora behera fidelitatea eta leialtasuna zinatua baikenion. Mila bostehun eta hogeita bateko apirilaren 27a zen.

Ekintza honetan *Victoria* untziko kapitainak eta beste sei soldaduk bizia galdu zuten. Erretiratu ginen bizirik irauten genuenak geuren untzietara zauriak sendatzera. Entseatu ginen Magalhães-en gorpua geureganatzen, etsaiek eska zezaketen edo gogoko zuketen zer nahi gauzaren truke, baina

ezezkoa eman ziguten, erantzunez garaipenaren ikur bezala nahi zutela gorde haren burua.

Maiatzaren lehena zen Zebuko erregeak mezulariak igorri zituenean Barbosa eta Serranorengana esanez harri eder preziosoez moldatu opari bat prestatu zuela Espainiako erregearentzat, eta oturuntza batera gonbidatzen zituela. Serranok susmatzen zuen Enrikeren traizioa, honek jada jaberik ez zuenez, baina Duarte de Barbosak koldarkeriatzat kontsideratu zuen ez joatea.

Ni untzian gelditu nintzen zauriak sendatzen eta susmo onik ez neukalako. Jaitsi ziren bada Barbosa, Serrano eta 26 soldadu hondartzara. Carbalho eta honen bigarrena atzetik baitzihoazen konturatu ziren nola erregearen anaia Calmetak Armadako Valderrama kapilaua indarka zeraman berekin. Palmondo batzuen itzalean eseri ziren bazkaltzera, Serrano kapitaina eta honen bi lagun ezik. Batzuek ohartu ziren zuhaitzen atzean bazela jende armatu pila eta korrika joan ziren untzietako jendeari abisatzera.

Untzietan geundenak oharturik tirokatzen hasi ginen hondartza aldera, baina hantxe agertu zen Serrano larrugorrian, eskuak loturik eta indio tropel batez zaindua. Malko eta garrasi ugari isuriz esan zigun erreskata genezala, bestela hil egingo zutela bere eskifaiakoak bezala, baina untzira itzultzea erabaki zuten besteek, eta panorama ikusiz belak altxatu genituen eta ihes egin. Urrundik ikusi genuen etsai haien algarak eta pozak. Uharte haietan balio benetan

handiko bi kapitain, Magalhães eta Serrano, galdu genituen eta berrogei soldadu.

Han hil zituztenen arteko batzuen izenak hauexek dira: Duarte de Barbosa, João Serrano, Luis Alfonso, Andres de San Martin astrologo oso adiskide ontzat neukana, Leon Ezpeletako, Pedro de Valderrama fraidea, Francisco Martin Simon Arroxelakoa, Cristobal Rodriguez, Francisco de Madrid, Hernando de Aguilar, Guillermo Fenessi, Anton Rodriguez, Juan Seura, Francisco Picora, Fernando Martin, Anton de Goa, Rodrigo de Hurrira, Pedro Herrera Artiga eta Juan de Silva.

Desastre haren ondoren, Bohol islaren inguruan, ohartu ginen ez genuela jenderik aski hiru untziak ongi gobernatzeko, ehun eta hamabost marinel besterik ez baikenuen, eta hala neronek neraman *Concepción*, hondatuena eta konponezina zegoen untzia baitzen, erabaki genuen erretzea eta baliagarri gelditzen zitzaizkigun tresneriak, soka, kable, bela eta armak beste bietara igotzea eta haiekin hauek osatzea.

Kapitan Jeneral bezala João Carbalho hautatu genuen bozketa bidez eta Gonzalo Gomez de Espinosa *Victoria* untziko buru. Handik irten genuenean islaz isla ibili ginen. Cuiquit uhartean bazen urrea, jengibrea eta kanela aski. Hemendik hego-mendebalderantz abiatuz oso jende gutxi zeukan Cuagayan islara iritsi ginen. Hemen galdetu genuen non zegoen Poluan, bertan arroza ugari bazela jakin baikenuen, eta erakutsi ziguten bidea, azkenean topatu genuelarik uhartea. Honen kostaren luzeran iparraldera joanez

Laocao izeneko herrira arribatu ginen. Mahometanoak ziren erlijioz, halere, bakeak egin genituen hauekin, eta inguruko beste herri batean arrozez eta beste janariez ongi hornitu ginen.

Handik egun batzuetara Espinosa gizon batzuekin batera desenbarkatu zen eta harrera ona izan zuten erregearen etxean. Oraingo okasioan ere opariak elkarri emanaz trukean aritu ziren. Bazkari bikain bat ere egin zuten, espezeria mota ezberdineko kantitate ugaz ere hornitu zituzten eta batez ere Miluka islei buruzko informazioa lortu zuten, jakin nahi zutena bereziki. Alabaina une batean ehunka piragua eta kanoa hurbildu zitzaizkigun eta berriro traizioren baten beldurrez belak jaso genituen presaren presaz aingura bat bertan utziz.

Baina lehenago preso hartu zituen Carbalhok batzuek, tartean Luzongo erregeren semea, zilarrezko hornimendu dotorez jantzia, Borneoko kapitan jenerala. Inorekin kontsultatu gabe urre multzo handi baten truke aske utzi zuen, baina ez zioten honi bahiturik zeukaten Carbalhoren semea eta marxanderiekin lehorrean zeuden bi gizon libre laga. Horrela kontuak haietariko hamasei gizon printzipaletarik eta hiru andre eder preso mantendu genituen Espainiako erreginari opari gisara eskaintzekotan.

Abuztu hasieran atera ginen Borneoko barratik eta kosta inguruan beste ekaitz batek erasotu ondoren aurkitu genuen bazter apartatu bat non gelditu ginen 37 egun bi untziak konpontzen eta erreparatzen. Handik itsasoratu ginenean

berrero Carbalho Trinidad untziko mandotik kentzea erabaki zuten beste kapitain eta pilotuek eta hautatzea buru bezala Gonzalez Gómez de Espinosa, eta Victoria untziko kapitain neroni.

Uhartedi haietan egin genituen negozio zenbait eta bertako pilotu batzuek aurkitu genituen labirinto hura ezagutzen zutenak Moluketara gidatu gintuztenak. Hauek bistaratu genituelarik azaroaren 8an zuzenean Tidore hiriaren aurrean muilatu genuen, eta kainoiek salba bota zuten ailegatuak ginela adieraziz pozarren, eta Almanzorrek, hango erregeak, nor ginen jakin nahiz bidali zituen junko batean gizon batzuek, zeinak igo baitziren untzi kapitainera. Ongi errezibitu genituen eta lizentzia eskatu lehorreratzeko eta isla hartan negoziatu ahal izateko. Interes handiz ikuskatu zituzten generamatzan armak, lonbardak, eskopetak, kainoiak, gelak, monetak, pinturak, soka eta kableen armiarma eta beste dena.

Jaitsi ginenean untzietatik iltze kargak eskatu genituen, erregeak promestu zigularik presarik gabe nahi adina edukiko genuela eta zeremonia handiz Almanzorrek esan zigun Gaztelako erregeen adiskide nahi zuela izan. Espezierien truke noski gelditzen zitzaizkigun oihalak, zetak eta jantziak hartu zituen.

Halaberki, generamatzan 30 moro esklabo eta erreginarentzat Carbalhok gordeak zituen hiru andreak, bozkario handiz errezibitu zituen. Eta Tidoren bildu ziren beste herrialdetako erregetxoak, Ternate, Gilolo, Makian eta Bakiangoak, portugeseekin oso gaizki konpontzen zirela esan



ziguten eta agindu zuten denak egingo zirela Gaztelakoaren morroi. Nahi zituztela gure ohiturak eta erlijioa ezagutu. Hala bada gutun batzuetan sinatu zuten euren adiskidantza eta morrontza Gaztelarekiko.

Oso azkar behar genuenaz hornitu ginen eta uharteko produktuak untzietan sartu genituen, txori eder koloretsuak ere. Handik kostaz kosta Borneiko uhartera jo genuen eta Borneiko hiriaren parera. Jakin behar duzu hona ailegatzeko lehorretik hurbil nabigatu behar dela harkaitzez eta ur baxuez beterik baita eta zunda eskuan ibili behar duzula etengabe enkailatzeko arrisku handia baita.

Hiri handi honek badia zabala dauka eta hemen uztailaren 8an muilatu genuen. Berehala inguratu zitzaigun mamutzar gisara hornigarri suge handi bat zeukan barkutzar koloretsua eta, adiskidetsuki antza, jatekoak eta edatekoak oparituz, kapitainak modu berean eginez eta erregearentzat balios ziratekeen beste opariak eskainiz. Hala kanela, mirabalanosa eta alkanforra lortu genuen. Latitudea hemen 5 gradu eta 25 minutukoa, eta luzera 201 gradu eta 5 minutukoa da.

Borneitik itsasoratu ginen eta honanzkoan hartu arruta bera baina alderantzizkoa eta horrela Bornei eta Poluan uharteen artetik mendebaldera joaz Kuakayan irla begiztatu genuen, eta hemendik Kuipit irlako hegoaldera abiatu. Arruta honetan Joló uhartea omen zegoen, zioten, non perla lodi eta potolo ugari ediren zitekeen, eta bertako erregeak ba omen zuen bat arrautzaren tamainakoa.

Hamaika uharteren ingurutik nabigatu genuen. Kuipitetik hego-ekialdera joaz Sibuko uharte seinalatu ziguten interpreteek eta hemendik hego-hegoekialdera Viranu Batulake delakoa, hala nola Kandikar, Sarangani, non handik ez galtzeko pilotu bat hartu genuen Malukora joateko. Saranganitik Sanguir eta Siau isletatik Paginsara izenekora, eta azkenean Suar eta Mean uharten artetik Mare eta Tedorri arteko bokalera iritsi ginen. Moluketan geunden.

Hemen oso harrera ona egin ziguten bertako jaunek, eta etxe bat eraiki genuen negoziatzen hasteko. Trukean euskal hitz batzuek ere ikasi zituzten. Maluko uharteak hauexek dira: Ternate, Tidore, Mare, Notil, Maquian, Bachian eta Gilolo. Iltze, intxaur muskatua eta beste espezeria anitz nonahi bada. Ternate uhartearen gradu bat eta 30 minutuko latitudean eta 46 gradu eta 30 minutuko luzeran aurkitzen da.

*Victoria* untziak 600 kintal iltzez bete zuen sotoa, eta Espinosa kapitainaren *Trinidad* untziak 1200 kintalez. Itsasoratu ginen, bada, bertako kanoa ugarietatik gure inguruan agurtzen gintuztelarik, baina ohartu nintzen *Trinidad* untzia atzean gelditzen ari zela, eta azkenean baratu egin zela, koadernetako egoera kaxkarraren ondorioz ura ugari sartzen ari omen zitzaiolako, areagotuz arriskua zeraman karga astunagatik. Itzuli ginen lehorreraino laguntzarren eta bertako biztanleen laguntzaz karga deskargatu ondoren hasi zituzten denbora luzerako ziren erreparazioak, bederen hiru hilabeteko lana baitzen. Eta izan genituen solasetan nola Espinosa kapitainak nahiago zuen Hegoaldeko Itsasoetatik itzuli, hau da, ekialdetik Panamarantz eta handik Iparreko

itsasora pasatuz kargak Gaztelaratuko zituela, erabaki nuen mendebaldeko arrutari jarraikiko niola, portugesez egiten zuten eran, hauen Armadaren pean erortzeko arrisku handia izan arren, trafiko haren monopolioaz jaun eta jabe kontsideratzen baitziren.

Maluko uharteetarik larunbatez 1521eko abenduaren 21ean Tidoretik itsasoratu ginen eskifaiako 70 gizon eta uharteko 13 indioekin eta Maren egurrez hornitutakoan sua egitearren eta upelak urez bete genituen. Hego-mendebalderantz joaz Cuayoan, Laboan, Akchian, Latalata eta beste uharte txiki pila utzi genituen popaldean.

1522ko Urteberri egunean 4 gradu eta 45 minututako alturan geunden.

Hego-mendebalderantz jo genuen lehenik, esan bezala, eta gero ipar-mendebalderantz. Eta ez zen egunik Francisco Albo gure pilotuak bere neurriak eguzkiarekiko hartzen ez zuenik. Otsailaren 5ean jada 9 gradukoa genuen altura. Timor uhartearen parean ziren beste isla ezezagun batzuen ingurutik igarotakoan *Bôa Esperança* deitu lurmuturreko arruta hartua genuen.

1522ko urtarrilaren 8an aingurak bota genituen, Malva uhartean, non aurkitu genuen pipermin luze eta borobiletik ugari. Eta Timorreko uhartean den Mambay herri aberatsean sandaloz eta kanelaz hornitu ginen. Bertan galdu genituen istilu baten ondorioz arma gizon bat eta txo bat. Nabigatuz bada kosta haietarik lurra galdu genuen bistatik otsailaren 13an.

Udaberri izugarri txarra izan genuen, tormentak egun batean bai eta bestean ere bai sufritzea suertatu zitzaigularik. Maiatzaren 9an aingurak bota genituen kosta latz eta kaxkar batean, atsedean hartzeko eta urez hornitzeko, jende gehiena eriturik baikenuen, baina hain zen leku aldrebasa hura berriro itsas zabalerantz jo genuela. Batzuek lehenbailehen lehorreratu nahi zuten hala nola bidean zegoen Mozambike uharte handian, baina beste batzuek nahiago zuten bidean hil portugesen menpe erori baino lehen, zeren eta Portugaleko erregeak agindua emana baitzuen gure untzia harrapatzeko nola hala, eta Gaztelara lehenbailehen iristeko iritzikoak ziren.

Maiatzaren 18an *Buena Esperanza* lurmuturra zortzi legoatara ikusi genuen, haizete beldurgarria ari zen eta uren korronteak zoroak. Paraje hau nahiko lan eta nekez igaro ondoren, Indiako itsasotik Atlantikora pasatuz ipar-mendebaldera abiatu ginen 22an.

*Cabo Verde* inguruko hamabi uharten alturan genbiltzala hain zen handia gure gosea, egarria eta beharra, janak baikenituen arrosa erdi ustelak, sotoan zebiltzan sagu eta arratoiak, eta ura ahitu zitzaigunez ere, non gehienak erabaki zuten gerturatzea eta Santiago izenekoan muilatu genuen *Rio Grande* portuan. Gero eta marinel gutxiago baikenituen eta hauetatik gehienak erdi gaixorik, untzian ura sartzen zela eta atxikatzeko bonbei emateko pentsatu genuen esklabo beltz batzuek erostea eta trukean iltzea ematea.

Arrozaz beteriko bi upel lortu genituen. Jakin izan genuen portuko marinelekin hitz egiterakoan egun bat

aurreratu genuela, galdetu baikenien ze egun zen eta osteguna zela erantzun ziguten, guretzat asteazkena zenean. Beraz, munduari itzulia mendebaldetik ematerakoan eta gure kalendarioak, egunero markatzen baikenuen bertan pasatzen zirenean 24 ordu, egun bat gutxiago seinalatzen zuen.

Nola uharte hartako buru zen kapitan portugesak jakin zuen espezieriaz beteta gentozela, erabakia genuen arren esatea Amerikatik gentozela ekaitz batek bultzaturik, eta nola portugesak ez zirenei debekatua baitzitzairen negoziatzea, bigarren aldiz jan-edan gehiagoren bila joan zen bateleko hamabiak lehorreratzean preso hartu zituzten, mihi luze baten batek hitz gehiegi esan eta traizioa egindakoa.

Ohartuz ez zetoze eta zerbait gertatu zitzaiela *Victoria* untzian inguratu ginen zerbait porturantz, non batel batetik esan ziguten errenditu gintezela. Nik esan nien itzultzeko batela eta bertako marinela, eta erantzunaren bila joan zirenean beldur baikenen gu ere preso hartuko gintuztela itsaso zabalera irten ginen, pena handiz zeren eta han abandonatu behar izan nituen Perutxo Txindartzako eta Pedro Tolosakoa, zein baino zein gazteago eta zerbitzari hobeago. Orain hogeita bi marinelek osatzen zuten eskifaia, erdiak baino gehiago aski gaizki zeudenak. Uztailaren 14a zen.

Abuztuaren 15ean Fayal eta Flores uharte inguruetatik igaro ginen. San Vicenteko lurmuturra bistaratu genuenerako irailaren 4an jada hilak ziren eskorbutoz beste lau marinela eta kareletik harri handi batez loturik hondoratzen genituen. Maluko uhartetik itsasoratu ginen 70 gizonetatik, batzuek

goseak hil zituen, besteak Timor uhartera ihesi eginak, hainbat ekaitzek berekin eraman zituzten, eta beste hainbeste gaitzak, eskorbuto deitzen duten eritasunak jota, fruta eta barazkien ezean janarietan, hauek berehala usteltzen zirenez beroarekin, eta ondorioz hortzobiak handituak eta odoletan, nekea, ahultasuna eta beso eta bernetako minez hiltzen ziren Bustamante barberuak une oroz ahal zituen medio guztiekin entseatu arren jendea bizirik mantentzen. Irailaren batean, astelehenez, 37 gradu eta 14 minutu neurtu genuen eta estesudeste abiatu ginen, eta Cabo San Vicentetik 81 legoatara geunden.

Irailaren 4an, ostegun goizean, gabizainak abisatu zigun bere largabistarekin ikusia zuela nordestera San Vicenteren lurmuturra, eta horrela aldatu genuen branka estesudesterantz zuzenduz. Azken finean San Lúcar de Barramedara berriro arribatu ginen bidaian portu beretik atera ginenetik hiru urte ken hamalau egun pasatu genuelarik bidean, hamalau mila lauhun eta laurogei legoa itsasoz nabigatu ondoren. Mendebalderantz itsasoratu eta ekialdetik itzuliz.

Hona bizirik baina mila zauri gorputzean eta ariman sufritu ostean, iritsi ginenen izen zerrenda:

Kapitain            Joan Sebastian Elkano

Pilotu                Francisco Albo

Maisu                Miguel Rodas

Kontramaisu      Juan Akurio

Merino	Martin de Yudicibus
Barberu	Hernando de Bustamante
Kondestable	Aires
Marinelak	Diego Gallego, Nikolao de Nápoles, Miguel Sánchez de Rodas, Francisco Rodriguez, Juan Rodriguez de Huelva, Anton Hernandez Colmenero
Mutiltxoak	Juan Arratia, Juan Santander eta Vasco Gómez Gallego.
Pajea	Juan de Zubileta
Sobresalientea	Antonio Lombardo

Azken hau Pigafetta deituraz, Lombardiako lurraldean den Vicenza herrikoa Magalhães-en adiskide kutuna zen, eta Erromak bidalitako espioia, espedizioa hasi baino hiru hilabete lehenago Sevillara iritsitakoa aitasantuaren Nuntzioa zen Francesco Chiaragati rekin Bartzelona eta Malagan barrena. Hizkuntzetan aditua zen eta Enrikerekin zebilen beti hala nola indioekin bere bitakora liburuan eskribitzen paraje

guztietako berriak eta hitzak, zerrenda batzuek eginez, hala nola pilotuari galdetzen latitudea eta marrazki zenbait pintatzen. Desenbarkatu genuelarik Sevillan El Puerto de las Muelas deituan korrika joan zen Enperadoreari eskaintzera toskaneraz idatzi bere egunorozkoa, eta Karlos V.ari bidaiaren berri emandakoan Portugalera zuzendu zen hemen Joao III.ari ere berrien ematera, ondoren Frantziako erregearen ama zen Luisa Saboiakoarengana albisteak eta beste kopia bat eskaintzera eta azkenik Italiara itzuliz Klemente VIIa aitasantuarengana.



## VII

### PRIMUS CIRCUMDEDISTI ME

**S**an Lúcar de Barramedako portuan arribada egin genuen bezain pronto munduari bira emanda beti mendebalderako arruta jarraikiz, erabaki nuen egitekorik premiazkoena zela berehala erregeari gutuna eskribitzea.

Baina egarriak eta goseak erdi hilik baikentozen lehenik bizirik iritsi ginenontzat ia gutaz ahaztuta zen Diego Collantes Kontratazio Etxekoaren ordezkariari esker lortu nuen jan-edanik. 12 arroba ardo erakarrarazi nuen, 50 ogi biribil eta erroka, 70 libra t'erdi pisatu zuen behi laurden bat, eta 51 meloi. Baita ere, Cabo Verden batelik gabe gelditu baikin, Martin Goikoetxea untziko kapitainari batel handi bat erosi genion eta beste erosketa nahitaezko batzuek ere burutu genituen gure onera itzul gintezen, eta osatu.

Berehala, bada, batere denborarik galdu gabe, ni neu izan nahi bainuen lehena albistea ematen, Erregeari Gutuna eskribitu nion, bidaiaren berri laburra kontatuz eta azpimarratuz nola agindutakoa bete genuen. Espezeria uharteetara joateko mendebaldeko arruta. Gaztelaniaz, noski, modu ahalik zehatzen eta zuzenean, hemen euskaldun irakurleentzat honela itzultzen dudana:

*Maiestate xit goren eta xit prestua,*

*Jakingo du Maiestate Goren horrek nola iritsi garen hemezortzi gizon soilik berorrek Espezeria deskubritzera bidalitako bost itsasontzietatik Fernando de Magallanes kapitainarekin batera, zeina lorian dadin, eta Zure Maiestateak gertaturiko gauza nagusien berri ukan dezan, laburki idazten dut honako gutun hau, eta diot.*

*Lehenik, ekinozioko lerroaren hegoaldeetik 54 gradutara iritsi ginela, non ehun legoa luze den hertsidura bat aurkitu genuen igarotzen zena Berorren lurraldeetatik Indietako itsasora, zeinaren sarrera ikusi abal izan genuen hiru hilabete eta hogeitun egunen buruan. Haize onak lagun luzaro ez genuen lurrik topatu, bi isla txiki eta huts ezik, eta gero uharte multzo batera iritsi ginen, urrez aski aberatsak ziren uharte askotara. Fernando Magallanes kapitainaren heriotzagatik, hala nola beste askorenagatik, eta jende faltagatik nabigatu ezin izateagatik, oso gutxi geratu ondoren, ontzietako bat desegin genuen, eta gainerako biek uhartetik uhartera nabigatu genuen, Jainkoaren*

*graziaz azkenean Maluko uharteetara iristeko modua izan genuen, Kapitaina hil eta zortzi hilabetera gertatu zena, eta han kargatu genituen espeziez bi ontziak. Jakin behar du Zure Maiestateak nola, Maluko uharte hauetara nabigatzen ari ginelarik alkanforra, kanela eta perlak aurkitu genituen abondanki.*

*Maluko uharte horietatik Espainiara itzultzea desiratu, ur-bide handi bat sortu zen ontzietako batean, halako moldez non ezin baitzen konpondu deskargatu gabe; eta untziek Zabba eta Melararako nabigatzen duten garaia igarota, erabaki genuen edo hil edo ohore guztiz Zure Maiestatea zerbitzatu aurkikuntza horren jakitun izan zedin. Untzi bakar batean abiatu ginen, bada, oso egoera txarrean egon arren hala eskifaia nola untzia, Jainkoak bakarrik dakiela. Bidaia honetan isla aberats asko aurkitu ditugu, horien artean Bandam, non jengibrea eta intxaur muskatua ematen diren ugari, eta Zabba, non piperra eta Timor, non sandaloa hazten diren, eta aipatu uharte guztiotan nahi adina jengibre bada. Isla hauetan ematen diren produktu guztietatik ale erakusgarriak dakartzagu Zure Maiestatearentzat.*

*Baita Uharteetako errege eta jaun guztiek beren eskuez sinatutako agiria, non bakea eta adiskidetasuna adierazten duten eta aitortzen, erregetzat eta jaun naturaltzat nahi dutela izan dadin Berorri.*

*Azken irla hartatik bost hilabetetan irten ginelarik, gari eta arroza besterik jan gabe eta ura bakarrik edanez,*

*ez genuen inolako lurrik ukitu, Portugalgo Erregearen beldurrez, zeinak baitu aginduta gure Armada preso hartzea, Berorrek deusik jakin ez dezan gutaz, eta horrela bidean hogeita bi gizon gosez hil zitzaizkigun. Hala bada iritsi ginen elikagaien bila Cabo Verdeko uhartera eta hango gobernadoreak hamahiru gizon harrapatu zitxidan, eta nire gizon guztiekin batera eraman nahi ninduen Kalikutatik espezieriaz beteta Portugalera zetorren untzi batean, esanez portugesek bakarrik zutela eskubidea Espezierian aritzeko. Eta horretarako lau untzi armatu prestatu zituen ni harrapatzeko, baina erabaki genuen, ados jarrita eskifaiako denak, portugaldarren eskuetan erori baino lehen hiltzea, eta horrela, ponpa-lan izugarriarekin, sentinaren azpian, egunez eta gauez ura kanpora botatzea besterik ez genuela egiten, inoiz gizon bat hain abituta egon ez dela, Jainkoaren eta Andre Mariaren laguntzarekin, hiru urte igaro ondoren, muilatu dugu San Lúcar de Barramedan.*

*Beraz, erregutzen diot zure Maiestate Gorenari ezen Portugalgo erregeari eska diezaiola hain luzaro zerbitzatu dizkioten hamahiru gizon horien askatasuna, eta Berorrek gehien estimatu eta eduki behar duena, eta duguna da, munduaren biribiltasun osoaren froga eman dugula, mendebalderantz joanez ekialdetik itzuli garela.*

*Erregutzen diot Berorren Maiestatearen zerbitzuan jende honek sufritu dituen hainbat eta hainbat lan, izerdi, gose, egarri eta bero ikaragarrien ordain bezala berekin dakarten ondasunen laurdena eta hogeirena demaiela. Eta*

*honekin amaitzen dut, zure Maiestate Gorenaren oinei eta eskuei musu emanaz.*

*Victoria untzian eskribitua, San Lucarren, 1522ko irailaren 6an. Juan Sebastian Elkano kapitaina.*

Ahalik arinen joan zedin mezularia eskatu nuen eta idatzi nuen gutunaren garrantziaz oharturik hala agindu zuen, hain modu azkarrean, non aste baten barru irailaren 13an Valladolideko Gortera iritsi zen, albisteak izugarrizko harridura sortu zuelarik, zeren eta San Antonio untzia arribatu zenez geroztik beste guztiak galdutzat jotzen baitzituzten.

Erregek berehala idatzi zidan eskatuz joan nintzaion bisita egitera pertsonalki eta nire ahoz hala nola nik hautatu bi gizon burutsuenetik entzun nahi zuela abentura hura. Halaber, esaten zidan nola agindu zien Domus Indica-ko ordezkariari beharrezko genuen jantzi eta gauza guztiez horni ziezaiguten bi hautatuak eta neroni. Nik, noski, Frantzisko Albo pilotua eta Hernando Bustamante barberua, nire adiskide zentzudun eta buru argiak aukeratu nituen.

Albistearen berri Kontratazio Etxeko tesorero zen Domingo de Otxandiano izan zenean berehala bidali zidan batel bat hamabost gizonekin laguntzeko eta erregeen eskribaua zen Juan de Hegibar. Horrela bada, San Lucarren arribada egin eta handik bi egunera, eskerrak hauen laguntzari, Sevillako moilean Torre del Oro ondoan atrakatu ahal izan genuen.

Ama Birjinaren Natibitate eguna zen, irailak 8, astelehena, eta lehorreratu aurretik kainoiak su egin zezaten agindu nuen. Arratsalde sargori bat zen, eta kaian jende anitz esperoan izan arren ez ginen jaitsi, eta biharamunean alkandorak jantzita, hankutsik, kandelak eskuan, desenbarkatu ginen eta prozesioan Trianako auzora joan ginen *Nuestra Señora de la Victoria* elizara lehenik eta gero *Santa Maria de la Angustia* zaharrera eskerrak ematera.

Cristobal de Haro, Burgoseko merkatari aberatsa eta gure espedizioko hornimenduan aritu zenak, armadore printzipalak genekarren marxandizez berehala interesatu eta kargu egin zen eta honetarako erregearen gutun batekin bidali zuen Diego Díaz, ordezkari, kapitaina, pilotua eta marinelen kutxez, kargaz eta zakuez jaun eta jabe egiteko.

Horrela zehaztasun osoz pisatu ziren azaroaren 6an Kontratazio Etxean gurdi batzuetan moiletik ongi zainduak eraman zirelarik eta zerrenda honela osatu zuten:

Juan Sebastian Elkano, kapitaina, hiru zaku handi iltzez eta fustez betea, 6 arroba eta 15 libra; Francisco Albo, pilotu, bi zaku iltzez beteak. Miguel de Rodas, kontramaisu, bi zaku iltze garbiz beteak, 6 arroba t'erdi. Juan de Akurio, kontramaisu, zaku hautsi bat. Hernando Bustamante, barberu, kaxa handi bat iltze garbiz bi zakutan ezarriak. Eta beste.

Baita Cabo Verden gelditutako marinelen zakuak: Martin Mendes, Armadako kontable, zaku berri bat iltzez eta fustez betea, 3 arroba eta 2 libra; Juan Martinez, sobresalientearenak eta Roldan lombarderoarenak. Hans Vargue, lonbardero,

pegar beiraztatua, hiltze eta intxaur muskatuz betea. Diego Gallego, marinel, bi zakuto. Vasco Gomez Gallego, txo, zorro handi bat eta bi txiki. Juan de Zubileta, txo, poltsa bat iltzez betea. Espinosa alguazilaren habila pintatu bat. Jorge, Magalhães-en esklaboa, Doña Beatriz de Barbosarentzat...

Halaber, artilleriako tresneria guztia, munizioak, sokak eta untziko beste atarramentu guztiak Sevillan utzi ziren Kontratazio Etxearen manupean. Eta Karlos erregeari zegokiona neronekin eraman nuen Valladolidera bisita egitera joan nintzaionean.

Orotara 381 zaku iltzez beterik kalitate hoberenetarikoak, 524 kintal eta 21 libra t´erdi pisatu zutenak zakuen eta soken pisua kenduz, eta salmentan 8.680.555 marabedi eman zutenak, eta kontuan harturik bost untzien espedizio osoa antolatzeak 8.334.335 marabedi kostatu zela, 346.212 marabediren etekina bagenuen, baina zenbat lan, heriotza eta sufrimenduen orde?

Abiatu ginen bada lehorrez, lehenik presentazio hartako beharrezko genituen arropak erosi eta jantzita, Albo pilotua, Bustamante barberua eta hirurok Valladolideko Gortera gure zaldi karrosa ederrean, mando batzuek zeramatelarik espezierien karga erregearentzat. Bidea luze egin zitzaigun. Sevillatik Kordobarako bidean San Andreseko bentan gelditu ginen. Kordobatik Ciudad Realerakoan *Venta de los Locos* deituan, eta izenari ohore egiten zion zoroetxea baitzirudien. Ciudad Realetik Toledora *Venta de la Zarzuela*-tik, eta hemendik Avilara *Venta de Mojapan*. Avilatik Arévalora eta

azkenik Gortera ailegatu ginen. Ohituta baikeunden untziko jan-edarien eskasiara bentetako ostatuak oparoak iruditu zitzaizkigun, eta erregeari zer esango genion solastatu genuen gure artean, zehaztasun handiz.

Aste baten buruan azkenean iritsi ginen Gortera, eta Cristobal de Haroren jauregian hartu genuen errepausu eta atsedena. Kristobalek harreman zuzenak zituen enperadorearekin, honi, hau beti zorretan baitzegoen bere behar izugarri amaigabeei erantzutearren, diru pila maileguz emana baitzion eta Frantzisko de Lobos, Santiago ordenako zalduna eta *Consejo de Indias* deituko biltzarreko idazkariaren adiskide baitzen eta une hartan erregea bere jauregian baitzuen Gortea kokaturik.

Hala bada, larunbatez goizeko hamarretan prestatu baikin en apainki hirurak errezibitu gintuzten protokolo guztiarekin. Sala handi batean mahai baten inguruan zeuden eserita kontseilariak. Juan Rodríguez de Fonseca Burgosko apezpikua zen presidentea, eta honen inguruan zeuden Vega, Zapata, Carvajal, Mota, García Padilla, Agirre lizentziatua eta Martir Angleria doktorea. Gure izenak esan ondoren Karlos erregearengana hurbildu ginelarik belaunikatu egin ginen haren aurrean baina honek altxaraziz esan zigun gure errelatoa entzuteko gogo biziz zegoela.

Atera genituen kutxa batean generamatzan espezie batzuek hala nola portulanoak eta kontatu genizkion taxuz, modu pixka bat luzexeagoan aurretik igorri genion kartan genioena, itsasoan eta Moluko isletan igarotako abentura eta



desgrazia guztiak, eta nola munduari itzulia ematen lehenak izateaz oso harro sentitzen ginen. Nik hitz egin ondoren errespetu handiz, Albo pilotuak modu zehatzean arruten eta derroten berri argibideak erakutsi zizkion, Karlosten galderei erantzun oso jakingarriak emanaz, eta azkenik Bustamante barberuak grazia aparteaz baina seriotasunez ere kontatu zituen Indietako marabila ikusgarriak.

Karlos erregeak, bere gaztetasuna nabari zitzaion arren, modu txit jakintsuan egin zizkigun galderei ahalik eta era argienean erantzun genien eta azpimarratu nola gure kalkuluetan Moluko islak eta bertako aberastasunak Gaztelako erregeari zegozkion Tordesillako Itunaren arabera, kontutan hartuta mundu borobilaren neurriak, zeina behin baino gehiagotan ziurtatu nahi izan zuen ez baitzuen nahi bere koinatu zen Portugaleko erregearekin inolako gerrarik izan nahi.

Oso pozik atera ginen areto hartatik gure eskaeren ardura izango zuela esan baitzigun Karlosek, eta berehala agindu baitzion Fonseca presidenteari eta honen peko zerbitzariei bete zitzaten, legezko eta merezimenduzkoak kontsideratzen baitzituen.

Biharamunean, igandez, Gattinara Karlosten kantziler ospetsu eta jakintsu izandakoaren ordezkoko zen Gaspar Contarinik, Veneziako Ducearen errepresentanteak, nik egindako gutunaren kopia eskatu zidan kopiatu ahal zezan eta munduan zehar gure bidaiaren berri zabaltzearren, eta han bertan kopiaturik honelaxe datatu zuen, 1522ko irailaren 24a.

Alabaina, badirudi ez zirela gelditu gauza batzuek argi bidaiako heriotzen eta eramandako iltze kargen gainean. Bestalde, Antonio lonbardoaren bisita ere izan zuela jakin genuen, non espioi harroputz eta bazter nahasle hark eskaini omen zion bere eskuz toskaneraz idatzitako itsasoko narrazioa, 208 orrialde luze, zenbait marrazki eta guzti, bertan inoiz aipatzen ez ninduelarik.

Hala bada enperadorearen aginduz, urriaren 18an Santxo Diaz de Legizamon, Gorteko kontseiluan alkate zena, Juan de Garibai eskribauaren aurrean galdera batzuek egin zizkigun, baina hemen bizpahiru bakarrik kontatuko dizkizut, denez ez bainaiz oroitzen.

Lehena hauxe izan zen,

*¿Cual fue la causa por que hubieron discordia Fernando de Magallanes y Juan de Cartagena y los otros capitanes y personas de la Armada?*

Erantzun nion Magalhães, eta Cartagenaren arteko desadostasunaren arrazoia zela Juan Cartagenakoa untzi bateko jeneral eta kapitain bezala Fernando Magallanesekin batera conjunta persona legez zihoalako, Ruy Falero kapitainaren ordeztan, eta Enperadorearen zedulaz izendatua zegoela halako karguan eta, beraz, Juan de Cartagenak baimena eman gabe ezin zitekeela deus erabaki. Eta Cartagenaren legezko eskaerei baia eman ordeztan ezezkoarekin erantzuten zuela beti Magalhãesek, ez zuelako horrela ez interpretatzen ez onartzen agindua.

Eta sesio hau Gineako kostaldean hasi zela, han maisu batek marinel bati popatik ematen aurkitu izan zutelako eta egun berean Magalhãesek berak Juan Cartagena preso sartu zuela karguetatik kenduz, eta Brasilgo kostaldean erbesteratu nahi izan zuela, eta beste kapitainen erreguagatik ez zuela orduan untzitik bota eta Gaspar de Quesadaren menpe preso utzi zuela. Eta Juan Cartagena kapitaina zen untziko kapitain bezala Alvaro de Mezquita bere lehengusua izendatu zuela, eta ondoren, Joan Cartagenakoa eta elizgizon bat laga zituela lehorrean abandonatuak, patagoniako paraje galduetan.

Eta beste kapitainek Magalhães, eta Cartagenarekin batera biltzea eskatzen ziotela Magalhãesi, bere ofizialekin kontzejua har zezala, eta joan nahi zuen tokiranzko derrota agertu ziezaigula abiatu aurretik, ez zedila horrela galdua ibili, eta ez zezala paraje hartan negua igarotzeko erabakia hartu, elikadura amaitzear, eta hotzak jasan zezaketen tokiraino joan zitezela hertsidura bila eta leku aproposa aurkituz gero bertan geldi gintezkeela.

Eta Juan de Cartagena eta Gaspar de Quesadak eskatu zidatela erregearen aginduei men eginez honen aginduak betetzeko laguntza eman niezaien, bere aginduetan agintzen zuen bezala, eta esan nien hala zirenez gauzak obedituko nuela, eta prest nengoela Magalhães, jaunari hori betearazteko eta eskatzeko. Hau kapitainek niri eta beste jende guztiari eskatu ziguten, portugesen eta beste nazioetako jendearen beldur baikin. Hala bada batel batean joatea erabaki genuen *San Antonio* untzira eta Alvaro de Mezquita preso hartzea, beste inolako asaldamendurik gabe. Halaxe egin zen eta

Magalhãesengana bidali genuen Armadako alguazila mandatu batekin, non eskatzen zitzaion untzietako ofizialen aholkuak erabaki guztietan kontuan har zitzan, zeinari portugesak erantzun zion ez zituela instrukzio haiek gogoko ez eta inoiz beteko Erregearengandik omen zetozen horrelako agindurik...

Hauek esandakoan honako bigarren galdera zuzendu zidan Legizamonek:

*¿Por qué causa mandó prender el Magallanes a Luis de Mendoza y matar, no le pudiéndole prender?, y si prometió algo al alguacil Espinosa.*

Bigarren itaun honi erantzun nion eta esan Fernando de Magalhãesek Luis de Mendoza atxilotzeko agindu zuelako izan zela arrazoia, honen aholkuengatik egiten zizkiotelako errekerimendu horiek, eta horrela bidali zituela kapitain jeneralak bost gizon Espinosa alguazilarekin batera hura atxilo zezaten eta, esanez, Espinosak *hori preso har ezazue*, labankadaka hil zuela. Horregatik, kapitainak hamabi dukat eman zizkiola Espinosa horri, eta besteei seinak dukat bakoitzari Mendoza eta Quesadaren ondaretik jaso zezaketenak.

Hau dela eta Legizamonek galdetu zidan bat-batean ea nola nekien hura, eta erantzun nion bertan presente nengoenez nire begiokin ikusi eta belarriokin entzun nuelako aitortu nezakeela egia zena. Hirugarren galdera beste hau izan zen:

*¿Cual fue la causa porque Fernando de Magallanes desterró a Juan de Cartagena y al clérigo Sánchez Reina con él, e hizo justicia de Gaspar de Quesada y Luis de Mendoza y otras personas?*

Erantzun nion Juan de Cartagena eta apaiza atxilotu eta erbesteratzearen arrazoia, eta Quesada eta Mendoza justiziaz pasatzea gertatu zela lehen galderan esan zuenagatik eta Magalhães, kapitain horrek zioelako, aipatuek jendea matxinatzen ziotela eta errekerimendu horiek egiten zizkiotela, eta horregatik izendatu zituela kapitain Alvaro Mezquita eta Duarte Barbosa. Izan ere Alvaro Mezquita eta Duarte Barbosa, Magalhães-en ahaideak etengabe aritzen zitzaizkion kexuka besteak kentzen ez zituelako eta kapitain izendatzen ez zituelako, kapitain portugaldarrak izanik jende guztia berea, nahi zuen guztia egingo zuelako. Eta horrela, kapitaintzat jo ondoren, hauek gaztelarrei tratu txarrak eta makilakadak pairarazten zizkieten, Maiestatearen aginduaren aurka. Nola Zebu uhartetik Luzon eta Mactan uharteetara abiatu zen, eta batelak bidali zituen jende guztiarekin gerra egitera, beste uharteetakoek Zebuko erregeari obeditu ziezaioten, eta haiek esaten zuten gure Errege Jaunari obedituko ziotela eta zergak ordainduko zizkiotela, baina Zebuko erregeari ez ziotela obedituko, hura bezain onak zirelako eta gure Jaunari urrezko bitxiak emango zizkiotela.

Laugarren galderari, zeina desterru eta egindako justiziez erantzun nion jada erantzuna neukala, eta bosgarrena hau izan zen:

*¿A qué causa se detuvo Fernando de Magallanes tanto tiempo en los puertos que entraba, que estuvo en el uno ocho o nueve meses gastando los mantenimientos, y en el otro cuatro o cinco sin hacer ningún rescate ni provisión, y perdía el tiempo de la navegación?*

Erantzun nuen denbora guzti hartan gelditu egin zela esandakoagatik, bere ahaideak kapitain bilakatzeagatik eta Armadaz nahi zuena egiteagatik.

Seigarrena beste hau izan zen:

*En las islas y tierras que estuvieron donde dicen había y vieron tanto oro y que al cambiar daban por un hacha diez o doce pesos de oro y por un cristalino dos o tres, y por un poco de hierro tres o cuatro pesos de oro, ¿Cual fue la causa porque no rescataron suma de oro de las mercaderías del armazón?, pues llevaban cantidad de ellas, y si alguno rescató en estas tierras e islas algo de ello.*

Honi erantzun nion nola Magalhãesek agindu zuen urrearen irletara iristean inor ez zedila ausartu urreaz jabetzen, heriotza-zigor mehatxupean, urrea mespretxatu nahi zuelako. Eta Magalhães, hil ondoren uharte hartatik ihes egin zutela, hiru kapitain eta hogeitazpi gizon hil zizkietelako, Magalhães-en esklabo batek egin zuen traizioagatik, eta beste uharteetara joan ziren, non ez zuten urrerik aurkitu, eta esklaboak traizioa egin zuelako arrazoia Duarte Barbosak perro deitu ziolako izan zela, eta ez nekiela inor han urrearen jabe egin zenik.

Zazpigarrena hau izan zen:

*Los juncos que tomaron de la China, ¿qué mercaderías traían?, y de lo que de ellos tomaron, ¿qué fue?, y si se asentó en el libro del armazón conforme al regimiento.*

Erantzun nion Txinako ihiuntziek zekartzaten salgaiak kotoizko eta zetazko oihalak, aizkorak, aiztoak eta perkalinak zirela, eta kontu emailearen eta diruzainaren liburuan zehazki jasoak daudela, hartu eta gastatu diren guztiak.

Zortzigarrena hau izan zen:

*Se dice que uno de los juncos que tomaron, en que iba un rey, el cual dicen se rescató por ciertas coronas de oro de las que ponen sobre la cabeza, y otras joyas de oro y oro en barras, que dicen dió en mucha cantidad a un Juan Caravallo y a otros porque le alargasen a él y los otros juncos que con él iban. ¿Cómo no vino acá ninguna cosa de ello, ni dan razón de ello?*

Erantzun nuen Juan Caravallo portugesari eta beste batzuei entzun niela nola hartu zuten ihiuntzietako bat, eta errege bat bertan zihoana libre uzteagatik urrezko bitxi batzuk barretan, baina ez nekiela deusik une horretan Bruney hirian nintzelako.

Bederatzigarrena hau izan zen

*Los rescates que se hicieron, ¿de qué manera se hicieron y si se asentaba todo en el libro con verdad y qué recaudo había en esto después que murieron los oficiales del Rey y quién nombró oficiales?*

Honi erantzun nion, erreskateak kontulariaren eta diruzainaren liburuan zehazten zirela, lekuko hau kapitain eta diruzain izan ondoren, eta lehenagokoez ez zekiela ezer,

Magalhãesek eta Carvalhok gogoko zutena egiten zutela, bakoitzak bere garaian, eta Magalhães hil ondoren Carvalhok nahi zuena egiten zuela. Ondoren, Carvalhoren aurkako prozesua egin zela, eta kapitaintzaz gabetu zutela, Karlos erregearen aginduaren aurka, eta honela gauzak, kapitain bezala aukeratu nindutela, eta Maluko uharteetarako derrota hartzeko agindu nuela liburuetan ageri denez, Magalhãesek eta Carvalhok sekula hartu ez zuten noranzkoa, hala eskatu egin zitzaizen arren behin eta berriro.

Hamargarrena hau izan zen:

*Si cargaron el clavo por peso y allá fue bien pesado, como acostumbran de recibir los que reciben y han de dar por peso, y acá escribieron traían más de seiscientos quintales, y de razón con la humedad de la mar y largo peso que recibirían, había de sobrar mucho, ¿cómo faltó tanto en ello?*

Honi erantzun nion, han iltzea mairuen pisuen erara jaso genuela eta han, ohitura zuten bezala, ongi eta zehatz pisatzen zituztela, eta Sevillara ekarri nuela berorren Maiestateko ofizialek hemengo pisua hango pisuarekin erka zezaten, eta idatz zezatela iltzez kargatutako untzia ekartzen genuela eta seinalatutako kopurua, diruzainaren liburuan finkatuta dagoena dela.

Eta nola pisu diferentziagatik berriro galdetu zidanez, zeren bere ustez itsasoko hezetasunagatik gehiago pisatu beharko zukeen, erantzun nion zehaztasun handiz zuhaitzetik jasotako iltze berria denborarekin trinkotu egiten dela, ez lizundu, eta lehor eta ongi artatua iritsi zela, eta mermarik ageri



bazen honexegatik zela, zeren eta itsasoko hezetasunak beroa denez iltzea berotu egiten duela ez hezatu, eta soilik Cabo Verden atera genituela hiru kintal nahita nahiezko bizi ala hil beharrezko genituen janari eta edariak erosteko izan zela.

Hamaikagarrena hau izan zen:

*¿Qué cantidad de clavo sacaron en el Cabo Verde?, y si tomaron en otra parte tierra, a donde dejasen algún clavo, o en Sanlúcar, o subiendo la ribera de Sevilla, si descargaron algo de noche de secreto.*

Honi erantzun nion jada erantzuna neukala, eta San Lukarretik Sevillarako bidean ez zela, ez egunez ez gauez inoiz deskargarik egin.

Hamabigarrena hau izan zen:

*Al capitán Magallanes, ¿cómo le mataron los indios?, porque algunos de los que allá quedan y en esta nao vienen dicen fue muerto de otra manera.*

Esan nion Magalhães Mactan hirira etxeak erre eta borrokatzera joan zela, Mactango erregeak Zebuko erregearen buruzagitza onar zezaten, eta ez zizkiotelako bidaltzen zerga legez arroz-anega bat eta ahuntz bat, eta Mactango errege horrek hara Mactanen itxarongo zuela esatera bidali zuelako, eta horrela Magalhães eta beste zazpi hil zituztela eta hogeita sei iritsi zirela zaurituta.

Hamahirugarrena eta azkena hau izan zen bada:

*Los que quedaron adonde mataron a Magallanes y los pudieran salvar, según de allá, los que quedan escriben, y algunos de los que en*

*esta nao vienen dicen. Pudiéndolos salvar, ¿porqué los dejaron perecer, y quiénes eran?*

Ez nekiela erantzun nion, zeren hau gertatu zelarik gaixo bainintzen eta ez nintzen gertakizuna suertatu zen lekuan eta hara joan zirenek honi buruz dakitena esango dutela.

Halaberki, Ofiziozko galdera bat jaso nuen, Maiestatearen zerbitzugabetasunean eta bere ogasunari eta armadari iruzur eginez bidaia horretan egin zen guztia esateko eta azaltzeko. Eta erantzun nuen Magalhães, bizirik zen bitartean ez nuela ezer eskribitu ez nintzelako ausartzen eta kapitan hautatu nindutenetik hasi nintzela liburuan zehatz-mehatz dena apuntatzen eta Juan de Samano idazkariari emanda niola, eta une hartan oroitzen nintzena zera zela, Magalhães jaunak aurretik esandakoa egiten zuela, Karlos erregearen aginduen eta bere Armadaren kaltetan, esan bezala, eta bere Maiestatearen oihalak nola ematen zituen ez nekiela, eta ikusi nuela nola Carvalhok bidali zuen bere seme bat lehengusu batekin Bruney-ra bertan gelditu zirelarik, eta ez nekiela zer eta zenbat gauza eramán zuten, eta hori Carvalhoren epaiketan ikusiko zela zehazkiago. Eta besterik ez nuela adierazteko eta begiraleek esango zutela, oroitzen nintzen orotaz mintzatu bainintzen.

Ondoren galdeketa berdinak egin zizkioten Frantzisko Albo eta Fernando Bustamanteri, pilotu eta barberuari, bata bestearen ondoren eta gauza berdintsuak esandakoan hirurok lekukotza sinatu genuen. Juan de Garibaik jaso

irakurritakoan Santxo García de Legizamon konforme gelditu zen

Cristobal de Harorekin hitz egin genuen luze bidez eta beste egitasmo eta negozio berriez, eta nola informaturik zegoen Gorteko gizonez bertan hausnartzen eta erabakitzen zenaz, eta errege gaztearengan sortu genuen inpresio onaz aholkatu zidan gutun bat zuzen niezaion eskatuz hainbat kargu etorkizunean egingo nituen bidaietarako.

Hala bada bigarren gutuna eskribitu nion 1522ko azaroaren bederatzian, gaztelaniaz, noski, eta honen tradukzioa euskaraz ematen dizut.

[Kopeta zimurtuz eta gogoratzeko keinu batez hasi zen]

### KARLOS Ia ENPERADORE JAUN XIT GORENA

*Juan Sebastian Elkano, Maluko uharteak deskubritu dituen Armadako kapitainak adierazi nahi dio, kontuan harturik egin dituen lanak eta sufritutako neke eta gose handiak uharte hauek aurkitzen Berorren mesedetan, eta beste anitz Jainkoaren laguntzaz espero ditudanak idorotzea Berorrentzat, hamaika lan horien ordainetan hauxe eskatzera ausartzen natzaiola:*

*Ni neu Armada edo Armadetako Kapitan Jenerala izenda nazala itsasbidea segurtatzeko eta uharte hauetako gorabeherak zaintzeko, hala nola beroietan altxa daitezkeen gotorleku eta gazteluetako buruzagi.*

*Halaberki, eskatzen diot Berorren Mesedeari Santiagoko abitua eman diezadala, Fernando Magallanesi eman zion legez.*

*Eta urtero berrehun dukat Berorren Maiestatearen zerbitzari gisara, hogeienaz lekat beste zergarik ordaindu gabe, eta nola, Jaun sagaratu hori, ditudan bi abaide hurbil xit pobreek asko lagundu didatenak bidaia honetan, beraiek gabe ezina izango zitzaidalarik Berorren Mesedea zerbitzatzea, eskatzen diot, arrenka, Bernardino La Serna delakoa erresuma hauetako buru denez Aita santuari eska diezaion izenda dezan Abade Nagusi bezala Arazenako barrutian, hutsik baita, eta bertako errentez balia abal dadin. Eta Frantzisko de Santa Cruz izenda dezan Sevillako probintzian hutsik legokeen beste bateko.*

*Eskaera hauek onartuz eskaintzen natzaio egunero mila heriotza arriskatzera Berorren zerbitzuan dagozkion okasioetan, Berori inperio honetan gure Jaunak kontserba dezan eta poderioan emenda.*

*Berorren zerbitzari umil eta apal*

*Juan Sebastian Elkano, kapitaina.*

Esana baitzidaten palazioko arazoak mantso doazela batez ere sekretarioen menpe erortzen direnean, erabaki nuen urtezahar eta urteberri egunak Getarian igaro behar nituela, atsedean ongi merezia hartuz eta albiste on eta txar guztien berri emanez. Etxean, amaren eta anaien berotasuna gozatuz eta abentura handi hura xehekiro herrian adiskideei kontatuz.

## VIII

### SALVE, REGINA MARIS

**C**RISTÓBAL de Harori esker erositako jantzi dotore eta poltsa ongi hornituarekin ibili ginen bada Gorteko mundu nahasi hartatik, zerbitzariak jarraika zituzten merkatari dotore jantziak dena erreberentzia esaten zidatela *agur, jauna, egun on duzula, adios, señor de Elkano*, errespetuzkoak antza, entzuten nituen nire Pisuerga ibaiaren ondoko ibilaldietan eta andre galant eta bikainen begiak sinpatiaz agurtzen nindutela nabaritzen nuela.

Cristobalek antolatu sarao batzuetan ere topatu nituen dena irriz eta graziaz beterik ziren andre eder eta oso argiak, asko irakurriak zirenak, eta bereziki batekin enamoratu nintzen, etxe noblekoa zen Maria de Vidaurretarekin elkarrekin gau osoak igarotzen genituelarik goiz alba arte gauza erretserbatuak esaten eta naturari ukatu luzaroan zor zitzaiena ematen.

Bidaia berri honetan Juan de Akurio Bermeoko kontramaisuak lagundu ninduen eta karrosa eder bat alokatu genuen erositako opariak kutxa handi batean sartu ostean. Bentaz benta ibili ginen etxerakoan, baina Burgosen Harokoaren jauregian atsedean hartu genuen. Hemendik Briviescara eta Gasteizera, non katedralean sartu-ateraldi bat egin ondoren bertatik gertu zegoen *El Portalón* deitu Postetxean zaldiz aldatu, afaldu eta lo egin genuen Bastidako ardo gorria benetan gustura dastatu genuelarik bai eta eper batzuek erreta gaztain saltsa eta barazki batzuekin irentsi.

Biharamunean Orozkotik barrena Bilbora ailegatu ginen, non ibaian zehar untzi ugari ikusi genituen karga-deskarga lanean. Bisita egin genion espedizioan lagundu zigun Rodrigo de Garay itsasontzi batzuen jabe eta armadoreari, zein ibai zabalari behatzen zegoen armarri potoloa zeukan dorretxe eder batean bizi zen bere familiarekin. Eta kontarazi zizkidan ere otordu bikain batean gure deskubrimenduen berriak. Zorionak eman zizkidan ere eta agindu beste itsasoko bidaia baterako diru eta tresneriak ezartzeko prest zegoela. Bertan loeginarazi zigun eta benetan haren oheko maindire zuri garbiak estimatu genituen benetan.

Biharamun goizean, goiz kaitik ibilalditxo bat eman genuen elkarrekin eta ohartu nintzen beste munduko portuetan bezala, Bilbao moilea dena zela birao, marinel eta garraiatzaileen ahoz. Hemen despeditu ginen Akurio eta biok, adiskide min gisara. Bera Bermeorantz abiatu zen, eta ni Durango, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Deba, Itziar eta Zumaia igarotakoan nahiko nekaturik iritsi nintzen Getariara, baina ez

lehenagotik Itziarko eliza bisitatu gabe. Eta Ama birjinaren irudiaren aurrean belaunikaturik kantatu genuen hainbat aldiz bezala itsaso haserrean:

*Ave, Maris Stella, Dei Mater alma,*

*Atque semper virgo, Felix coeli porta...*

*Solve vincla reis, Profer lumen caecis,*

*Mala nostra pelle, Bona cuncta posce.*

Agur Nort-izarra, ama jainkoarra,

agur erregina, guztiz berregina, ...

Ken itzazu gaitzak, argi bihotz beltzak,

Bai hastan fortunak, izan ontasunak.

Esan bezala etxeratu nintzelarik karrosa eder hartan eta nire bonet gorri lumadunarekin, kapa berde luzea, txamarra eskarlata, alkandora zuri brodatua, oihalezko galtza beltzak zeta zurizko gerrikoarekin, eta larruzko zapata beltz lokailu urreztatuekin, eta eskuin eskuan eraztun perladuna, herriko jende xumeak harri eta zur untzi nituen, zeren eta ez baitzuten noizbehinkako Biltzarretan baizik halako janzkera dotorerik ikusi. Ama Katalina izan zen gehien poztu zena, bizirik ikusi baininduen hiru urtez etxetik urrun igaro eta. Honelaxe esan zidan besarkatzerakoan, *ai seme, hori da Indietaraino joan beharra.*

Eguberri egunean bildu ginen mahai handiaren inguruan. Sebastian, Domingo, Martin, Anton, Juan, Otsoa, Katalina bere senar Rodrigo Gainzarekin eta Ines berearekin ere,

Santiago Gebararekin. Bidaiako hamaika ixtorio kontatu beharrean aurkitu ginen, Moluko uharteetako espeziak eta aberastasunak behin eta berriro entzun nahi baitzituzten. Nolakoak ziren lurralde urrun haietakoak. Nola janzen ziren, zertaz elikatzen ziren, zer arrain eta zer hegazti mota harrapatzen zituzten, hainbeste urre kontatzen zuten bezala ba ote zen. Eta beste hamaika galdera.

Ni ez nintzen nekatzen uharte haietako gizon batzuen inuzentekeria, trukeak egiten genituenean, emakume gazteen sexu liberalkeria, euskal herrietatik joandako beste marinelen bizitzak eta heriotzak, kastellano batzuen zikoizkeria, portuges batzuen maltzurkeria, italiano eta aleman batzuen harropuzkeria, andaluziarren umorea eta batzuen faltsukeria, soldaduen krudelkeria, diru kontalarien lukurreria eta Magalhães kapitain handiaren harrokeria eta heriotza. Mundu krudel eta bortizkeriaz bete. Argi eta erne ibili beharra zegoela beti.

Buruan neukala beste bidaiaria bat Moluko uharteetara, baina beste baldintza hobego batzuetan, espero nituenak lortzea Errege Karlosek oso harrera ona egin zidanez. Halaxe izan zen benetan, zeren 1523ko urtarrilaren zedula bat jaso nuen, non bizi nintzen bitartean 500 dukateko pentsioa urtero jaso ahal izango nuen. Eta nire armarrarian ezarriko ahal nuen **PRIMUS CIRCUMDEDISTI ME** hizki handitan.

Denek esan zidaten, etxekeok eta marinela ezagunek, hurrengo egitasmoetan beraiek kontuan har nitzala, prest zeudela nire agintepean mundua akabatzen zeneraino joateko



eta. Hala bada, bidaiako hirietan erositako oparitxo batzuek banatu eta promes batzuek egin eta gero ezagun hurbilenei, Gortera itzuli nintzen.

Herrian, bestalde, amodiozko ixtorioak bukatuak nituen, eta beste modu askeago batera ohituta bainengoen, marinelen gisara. Isabel lehengusua, nire gaztetako maite kuttuna jakin nuen beragatik galdetzean Orioko patroï batekin ezkondua zela jadanik, eta etxean esana zidaten nirekin haur naturale pollit bat ukan zuen Maria Hernialdekoak bere familiarekin Getariatik desagertu egin zela, inork ez zekielarik nora abiatua zen, agian Donostia ingurura edo...

Hala bada mila bostehun eta hogeita hiruko otsaileko 13an, Cristobal de Haroren jauregian nintzela jaso nuen Erregearen zedula bat, non Saboiako dukearen basailuei saltzeagatik untzia Enperadorearen barkamena lortzen nuen. Francisco de los Cobos idazkariak sinatzen zuen gutun batean eta promestutako dukatez at egindako beste eskaerez erantzuten zidan bikario kargua hark jadanik bazuela jabea, edota kontsultatuko zutela nola zegoen egoera.

Cristobal de Harok Magalhãesek pasarterik aurki ez zezakeelakoan Alfonso de Fonseca artzapezpikuarekin eta Francisco de Valenzuelarekin batera, beste espedizio bat antolatu zuen Indietako kostaldea mendebalderantz mila legoaraino esplora zezan, Moluketaraino itsasbide bat aurkitzeko, uharte horiekin trafikoa kostaldetik bestaldera koordinatu ahal izateko. Espedizioa, Gil González Dávila eta Andres Niñoren eskutik, Magallanes baino astebate lehenago

abiatu zen San Lúcar de Barramedatik, iritsi zen Karibeko kostaldera eta *Santa Maria La Antigua del Darien* porturaino; handik, lehorrez, eta istmo hura zeharkatuz, beste ozeanorantz abiatu zen, eta, aldi berean, handik, 1522an, eraiki ziren ontzi berrietan, esplorazio bidaia batean itsasoratu, baina azkenean iparralderantz baino ez zuen egin, mendebalderako arrutarik egin gabe.

Moluka uharteen arteko liskarra zela eta, Portugal eta Gaztelako erresumen artean adostu zen legelari, kosmografo eta pilotuen ordezkaritza batek ebatzea. Horrela, 1524ko martxoa eta maiatza bitartean, bi koroetako adituak ultramarreko arazoetan bildu ginen Badajozeko Batzarrean. Gaztelako ordezkaritzaren artean Fernando Kolon liburuzale handia, Kristobalen semea, eta ni geunden beste askoren artean.

Batzarra hasi aurretik, lekua argitu behar zen. Lehen bilera Caya ibaian egitea adostu zen, bi erresumen aurrez aurre, Badajozetik Elvas-erako bidearen erdian, eta, ondoren, egun batean Badajozen eta bestean Elvas-en biltzen ginen, elkarri egia aztertzeke eta bidezko epaia emateko zin eginez. Egun asko eman genituen esferak, gutunak eta harremanak begiratzen, aztertzen eta irakurtzen, eta nork bere zuzenbidea eta eskubideak argudiatzen, eta ikaragarritzako iskanbila sortzen. Ez zen akordiorik lortu.

Kontatzen zuten gero nola behin Badajozen, Guadianako ibarrean, Francisco de Melo, Diego López de Sequeira eta Portugaleko ordezkaritzako beste batzuek ibai

ondoan amak garbitzen zituen trapuak gordetzen zituen haur batekin topo egin zuten. Honek galdetu zien ea haiek ote ziren mundua enperadorearekin banatzen zutenak, eta baietz erantzun ziotenez, alkandora jaso, ipurmasailtxoak erakutsi eta esan ziela: pue echad la raya por aquí en medio.

Bilera hauetara beti Albo, Bustamante eta Akuriorekin ibiltzen nintzen, eta Valladolidera itzulitakoan nola Magalhãesi gauez atera zitzaizkion kale ilun batean kapaz estalitako ezpatariak hiltzeko asmoaz, abisua jaso nuen ere nik, erne ibili nendin ni ere hiltzeko asmotan bazebiltzala Portugaleko lekaio batzuek eta. Orduan eskatu nion Karlos Ia Enperadoreari, militarra ez izan arren armak erabiltzeko eduki nezan baimena, eta berehala iritsi zitzaidan baimena, alegia, lizentzia ematen zidala niri eta nirekin joan zitezkeen beste bi armaduni, batzuek begiz jota neukatelarik hiltzeko zorian aurki nintekeenez.

Maiatzaren 20an jaso nuen baimena eta berehala joan ginen pistola eta ezpata berri batzuek erostera. Handik hiru egunetara ailegatu zitzaidan xit poztu ninduen berria, alegia, Moluketako gobernadorearen izendapena.

Kortean 24eko urtean behin baino gehiagotan egon ginen gure bidaietz hitzegiten Bustamante, Gonzalo Fernández Oviedokoa eta neroni, hala nola Kristobal Harokoaren etxean. Gonzalo Fernández Pedrarias Dávilarekin 1513an Panamako espedizioan izana zen eta bai Kristobal Kolonen bidaiak, bai berak egindakoei buruz liburu eder bat prestatzen ari zen, eta zaldun ixtorietaz argitaratu

beste bat oparitu zidan entretenigarria, Claribalte titulua zeukana, oso ongi saltzen ari zena, bigarren edizioa egin baitzuen laster. Eta nire munduari itzuliaren historia arreta handiz entzuten zuen eta Relación... delakoa eskatu zidan eta denbora gutxian eskribitu ondoren gertakizun guztiak trukean oparitu nion. Oso gizon atsegina eta argia iruditu zitzaidan ni baino hamar urte zaharragoa zen madrildar hura.

Victoria itsasontzia iritsi ondoren, Cristobal de Haroren eskaeraz Karlos V.ak A Coruñaako Espezieriaren Kontratazio Etxea sortu zuen eta Haro bertako faktore izendatu. Orduetik aurrera, espezien merkataritzarekin eta, beraz, Ozeano Bareko nabigazioarekin zerikusia zuen guztia Haroren eta Burgosko finantza-talde eta sustatzailearen eragin zuzenaren pean egon zen.

Erregeari adierazitako hiri aldaketaren aldeko arrazoiak honakoak izan ziren, alegia, lehenik eta behin, portuaren kokapena erresuma guztietan dagoen onena zelako eta bere itsasbidea beste inorenak baino askoz ere egokiagoa, Armadak itsasoratzean derrota bertatik zuzenki hartu ahal izateko, eta berdin hartzen zutenean ere, itsasontziak arrisku gutxiagoan zeudelako; esperientziak erakusten zuen bezala. Nagusiki Flandriatik, eta Ingalaterratik, eta Frantziatik, eta Alemaniatik, eta Eskoziatik, eta Danimarkatik, eta Norvegiatik, eta beste alde askotatik, non espezieriaren gastu gehiena egiten zen eta hauentzat porturik gertuena eta seguruena zela, eta Sevillarako bidean Lisboan aurkitzen zenez gero bertan erosiko luketelako beharrezkoa eta San Bizenteko lurmuturra

igarotzea oso arriskutsua denez bertan itsasontzi asko galtzen delako.

Bestalde, untziak eraikitzeke Kantabriako kosta bezalakorik ez zela, bertan nahiko zur eta burdin, arotz eta zurgin, maistru eta armadore jakintsu aurkitzen delako eta aspalditik ofizio ezaguna dutelako itsasontzi seguru eta bikainak fabrikatzen. Halaberki, Armadak behar dituen arma eta gerrarako iskilu guztiak bertan jakiten badakitelako.

Sevillan, ordea, Guadalquivir ibaia ur gezaduna izanik eta lekua bero ikaragarria egiten duen parajea batik bat uda partean har ugari hazten delako bertan hondatzen dituenak bai untziak bai eta elikadurak. Eta komenigarriago zela itsasontzi handitan egitea bidaiak, zeren eta kapitainen, ofizialen eta marinelen kokagunea beterik ez den bestelakoetan aski unerik gelditzen kargarako. Eta eskifaiaren soldata berdintsu delako.

Eta esan bezala Sevilla hiri apartatua dela karga-deskargarako A Coruñarekin konparatuz, Guadalquivir ibaian gora nabigatzen dutelarik kontrabandoa egiteko ohitura zutela kapitainek eta marinelek eta aukera handia Galiziako portuan ez bezala.

Azken finean, gainera, itsasoetako patroia Jundane Jakobe Handia, Santiago zenez gero eta haren bitartekaritzak burutu zirenez deskubrimendu haiek leku berriaren hautatzea hauta zela, ezin aukera hobea. Eta halaxe egin zen.

Karlos V.a enperadoreak Moluketarako bide laburrago bat aurkitu nahi zuen Harori, ipar-mendebalderantz nabigatuz, espedizio baten Armadaren ardura eman zion. Itsasontzi flota Esteban Gomezen agindupean ezarri zuen honek, A Coruñatik 1524an itsasoratu zena, eta hurrengo urtean itzuli zeregin hori bete gabe, baina bai Ipar Amerikako kostaldearen zati handi bat esploratu ondoren. Bertan zihoan Diego Ribero kosmografo eta itsas kartak pintatzen maisu handia, nirekin Badajozeko Biltzarrean egona zen, eta Sebastián Caboto espedizio batera joan zenean haren ordezkari lehen pilotu izendatua izan zuten Sevillako Kontratazio Etxean.

Beraz, hurrengo urtean itzuli zenean goialdean hertsidurarik aurkitu gabe, hilabete batzuk geroago, Fukareak prest agertu ziren Karlos V.a enperadoreari mailegu berriak emateko, % 14ko urteko interesarekin, eta Kristobal Harokoak sinatu zuen kontratua alemaniarren ordezkari gisa, nire esku eta Frai García Jofre de Loaysaren utziz Indietarako bidaia, orain A Coruñatik itsasoratuko zenaren prestaketa osoa. Apirilaren 5erako jadanik Cobos idazkariak igorriak zituen erregearen gutun batzuek, non adierazten zitzaigun modu zehatzean kargu guztiei zein izango ziren gure egitekoak, eta lehenbailehen abiatu gintzen gure izendapenekin A Coruñako Kontratazio Etxe berrira, eta prestaketak egiten hasteko berehala.

Jakizu detaile moduan, Loaysaren soldata 2920 dukat zela espedizioak irauten zuen bitartean, Rodrigo de Acuñaarena 375 dukatekoa, zegokion lanetako arduragatik, eta

horrela berdintsu Pedro de Vera, Jorge Manrique, Diego Ortiz de Orue, Hernando de Bustamante, besteak beste, gobernadore, tesorero, kontalari, faktore eta beste ofiziokei, bakoitzari bere karguaren arabera...





## IX

### DIES IRAE, DIES ILLA

**M**ILA bostehun eta hogeita bosteko uztailaren 24an, Santiago Handiaren bezperan, Frai García Jofre de Loaysa Kapitain Jeneralak zin egin eta gero Fernando Andrade gobernadorearen aurrean estandarte jasotzerakoan, eta era berean kapitainek almiranteari bezala Armadako soldadu guztiek eta marinelek eta eskifaiak osatzen zituztenek euren kapitainei, goizean goiz eguna argitu baino lehen itsasoratu ginen.

A Coruñako portutik partitu ginen, bada, Kanariar uharteetarantz zazpi untzi, tronpetak eta atabalak joaz, eta kainoiak agur sutunpak boteaz. Loaysa, Kapitain Jenerala, espedizio honetako buru nagusia, Ciudad Realekoa zen, San Juan Konpainiako zalduna, lau urte lehenago Enperadoreak bidalia zuen gerrara Turkoen kontra. Rodrigo Bermejo zeraman pilotu nagusi bezala, eta ofiziale pila tesoreria eta

governazio kontuak zuzen eramatearren. Benavides, Covarrubia, Tejada, Solís, Martín de Valencia eta beste.

Itsasontzi flota honakoek osatzen genuen:

*Santa María de la Victoria*, zeukan izena 300 upeleko itsasontzi kapitainak. García Jofre de Loaysa buru.

*Sancti Spiritus* 200 upelekoaren gidari neroni, Joan Sebastian Elkano nintzen, erregek sinatu Moluketako Gobernadore titulua ongi gordea neukana kutxa batean.

*Anunciada*, 170 upelekoa, Pedro de Vera kapitainaren aginduetara zegoen.

*San Gabriel*, 130 upelekoa Rodrigo de Acuñaaren kapitainarenean.

*Santa Maria del Parral*, 80 upelekoa, Jorge Manrique de Nájera zaldunaren menpe.

*San Lesmes* 86 upelekoa, Francisco de Hocés kapitainak zuzentzen zuen, eta zazpigarrena

*Santiago* 50 upelekoa, Santiago de Gebara, nire koinatuak.

Enbarkatu ginen denek zerrenda 450era iristen zen.

Nirekin zetozenen artean lehen Indietako bidaia bukatu zuten Bustamante, Hans eta Cabo Verden preso gelditutako Roldan zeuden. Gure lur bazterrekoak ziren, Otsoa *San Gabriel* patatxeko patroia eta Martín Pérez *Sancti Spiritus*-eko pilotu, biok nire anaiak, Esteban Mutio, hau ere getariar marinela, nire iloba, Juanes Arrese, beste mutil getariar

sendoa, Juan Areizaga, Zumaiako apaiza, Antonio Martin Elkano, zumaiarra, nire lehengusua, *Santa María del Parral* untziko pilotu Martin Iñiguez Karkizano Elgoibarkoa, eta beste batzuen artean Andres Urdaneta alegiarra, noski, hi heu.

Erregearen agindu zorrotza geneukan denek, hau da, inolaz ere ez genuela ukitu ere egin behar Portugaleko erregearen lurralderik, zeina baitzen dakizun bezala, Karlosen koinatua.

Gauerdia baino lehen eskifaia osoak igaroak ziren zurezko enbarkaderotik moilean zegoen kontableari izena eman eta honek abante esandakoan, nork bere petatea bizkarrean, eta ofizialeak euren kutxak. Kokatu ziren, bada, kubiartapeko sotoan, bortizki eutsita eta orekatuta pisuak zeutzan kupelen artean marinelak, eta popaldeko eta brankako gazteluetan kapitainak eta beste ofizialeak euren kamainatan.

Alba aurretik untziko apareju guztiei eta sotoetako mantenamendurako upel, zaku eta elikadura guztiei errepasso zehatz eta ordenatu bat eman ondoren eta liburuan ongi eskribitu eta seinalatu ondoren, hala nola soka zurubietan gora igo eta bela guztien estekadurak errebisatuta, pasarela kentzeko eta brankako ababor eta istriborreko aingurak euren kateekin jaso zituzten ohiko zaratarekin gau izarztatu isilean. Belak altxatzen zituzten drizek kirrikan ari ziren txirriketan kantu apal baten konpasean. Bat, bi, hiru...

Finisterre lurmuturretik igarotzean haize kontrakoa altxatu zitzaigun, baina 27rako Berlingas uharteak istribor aldean utzi genituen, eta 31an Madeira mendebaldean

geneukala pasatu ginen. Hemendik hego-mendebalderantz jo genuen eta abuztuaren 1ean Kanaria uharteetan Gomerako hegoaldean muilatu genuen, non 14a arte gelditu ginen Armadarako beharrezko ziren egurrak, ur upelak, fruta, haragia eta beste elikagaiak jasotzen. García Jofre de Loaysa Kapitain Jeneralak beste Kapitainak bildu gintuen eta hartu beharrezko derroteroez mintzatu ginen.

Lehenbailehen behar genuela hartu bi ozeanoen arteko hertsidura hartarantz abiatzeko eta itsasoratzeko erabakia. Baten bat galtzen bazen topaleku bezala Brasilgo *Todos los Santos* badian har genezakeela, non besteak itxarongo zuen 20 egunez, eta beste untzirik ez bazen arribatzen bertara bidaiari eutsiko ziola berriro, baina kostako gailur batean gurutze bat utzirik seinaleztat, zeinaren oinpean lurperatuko zen marmita bat mezuarekin. Gauza bera egingo zela Santa Cruz ibaira iristean.

Abuztuaren 18an, itsasoaren zakarrak untzi Kapitainari masta nagusiaren punta, gabipetik hautsi egin zuen eta zurgin batzuek bidali nizekion konpon zezaten. Gau ilun eta brumatsu batean, beheko hodeiek bi metrora ikusten ez zutelarik uzten, popaldeko kriseiluaren argia aski ahula izaki, *Victoria* untzi Kapitainak *Santa Maria del Parral* abordatu zuen, popaldea hondatuz eta gibel masta boteaz, berriro erreparazioek denbora eman zutelarik.

Handik hogeit egunera gutxi gora behera, irailaren 5ean, ekinokzioaren lerroan untzi portugaldar batekin topo egin genuen. Loaysak bidali zuen Gebararen *Santiago* patatxea,

arinena baitzen, ea zein zetorren ikustera eta zetozenean biak inguratu zitzaien Acuña *San Gabriel* untziarekin eta giza maila printzipalago zeukanaren aitzakian exijitu zion beretzat untzi portugesa, eta nola ezezkoa eman zion Gebarak erantzunez berak harrapatu zuela, bonbardatzea agindu zuen. Ondorioz Gebarak eta Acuñaak eztabaida bizia izan zuten. Gebarak *hideputa*, *kanalla* deitu zion, eta Acuñaak *vizcaino*, *muerto de hambre*.

Azken finean portugés kapitaina Loayserenera igo zenean honek ohore guztiekin tratatu zuen, omen, eta nola jakin zuen itzultzen zirela Lixibona aldera Gaztelarako karta batzuek eman zizkion erregeri eramateko bertako maisuari.

Horrela bada, haize kontrastak izan genituelarik aldi batzuetan eta kalma egunak bestetan, urriaren 20an begiztatu genuen *San Mateo* uhartea, Gineako kostatik 60 legoatarra, 2 gradu t´erdi gutxi gora behera Ekuatorepean dagoena, non berriro ura egin genuen, eta laranjaz, palmondo txikietako fruituez, eta modu askotara txorien arrautzak jaten eta pila hiltzen ibili ginelarik, zein eskopetaz, zein makilakadagaz, eta nola arrantza ugaria zen bertan harrapatutakoak atxamartaz eta amuzko beste arteez jaten genituen, hala nola marrazo handi bat, zeina jan zutenak aski gaizki gelditu ziren pozoindurik estomakatik, baina barberuak belar sendagarriak ur irakinaz nahasitakoan eta hura besterik edan gabe egun batzuen buruan sendatu ziren. Gurutze bat topatu genuen bertan, eta Armadan zihoan portugés batek esan zuen 1515ean asaldatu esklabo beltzek akabatu zutela hura eta

portugesez idatzitako inskripzioan zioela traizioez ez, merezi zuelako baizik hil zutela,

*Aquí moreo el desditado de Juan Ruyz, porque lo meresao.*

Loaysa kapitainak agindu zuen egin zedin espediente bat untzi portugesearekin gertatutakoez Acuña eta Gebararen artean, eta azkenean entzundakoan bi parteak erabaki zuen Rodrigo pasa zedin bere untzira eta *San Gabriel*-eko kapitain bezala joan zedin Martin Balentzia.

Urriaren 31n, Santu Guztien bezperan, denboraleak erasotu gintuen hain krudelki, non bistatik elkarri galdu genion, zeren eta gauak beltzak baitziren bikea edo alkitran upelak bezalakoak, eta arruta galduta, ezin ikusirik elkar ibili ginen batera eta bestera itzulika itsumustuka.

Abenduaren 4an, hilabete osoa gure kasara nabigatuz, Brasileko lurak ikuskatu genituen. Eta kostaren luzeran hegoalderantz joanez abenduaren 25ean *Arenas Gordas* deitu kostaren parean 12 legoatara geunden jadanik, eta 26an 2ra, baina berriro Inozenteen egunean, ostegunez, bortitzago oraindik denboraleak zigortu gintuen euri zaparradez eta haize bolada zakarrez eta sakabanatu. Atertu zuenean azkenean eta sei untziak elkar ikusi genuenean untzi kapitaina falta zen.

Bildu ginen kapitainak eta untzi kapitainaren bila atera behar genuela nire iritzia eman nuen, baina ez zetozen denak bat. Juan de Pelola *San Gabriel* untziko pilotuak esan zuen ez zegoela arruta aldatzeko prest, Jeneralak agindutakoari jarraituko zitzaiola puntuz puntu, eta beste bostak hiru egunez

bila ibilitakoan kontzertatu genuen Santa Cruz ibaian sartzea bertan Martin Balentziaren eta Loaysaren untziak itxaroteko, baina Covarrubiasekin batera nire untzian bildu zirenean beste kapitainak eta ofizialak, ez ziren iritzi berdinekoak.

Hala Pedro de Bera, Francisco de Ozes, Jorge Manrique eta Santiago Gebarak erabaki zuten karta bat batelarekin bidaltzea eta uztea beste lekuetan bezala abisua sarrerako uhartetxo baten gailurrean, bertan kokatu gurutzepean, non adieraziko zitzaion hertsidura aurkitzera aurrerantz zihoazela, eta *Puerto de las Sardinias* deituan itxarongo zutela untziak erreparatzen, osatzen eta prestatzen.

Patatxea akordua betetzeko gelditu zen Santa Cruz ibaian eta besteok bagindoazen, bada, kostaz kosta. Igande batez goizalban, urtarrilaren 14ean, ustez hertsiduran bokalean sartzen ari ginela hego-mendebaldeko haize fanfarroi batek olatu izugarrik altxatuz harkaitz gaizto batzuen kontra eraman gintuen arrastaka, kableak amore emanda sokak hautsita.

Bidali nituen batelean anaia Martin, Areizaga apaiza, Roldan eta marinel batzuek ikustera ea hura zen benetan hertsiduraren sarrera. Albistearekin itzuli baino lehen marearekin berriro desenkailatzea lortu genuen eta itsaso zabalera atera ginen, eta ikusiz ez zetozeela batelekoak nabigatuaz pixka bat haraxeago ilunabarrean *Cabo de las Once Mil Vírgenes*, deitu parajera ailegatu ginen. Hamaika mila neskatilen lurmuturrean, Akuriok errepikatzen ohi zuen bezala, baina inoiz izan al da hainbeste, Ursula eta bere neskalagunak ez al ziren bada hamaika.

Han geundelarik berriro gauerdian halako haizea eta ekaitza altxatu zen berriro ze lau untzien aingura eta kateak arrastaka eraman zituela ia lehorreraino. Are itsusiago eta beltzago jarri zen panorama eta hain zakar non trabeska baratu ginen, eta igeri salbatu behar izan genuela batzuek, Jainkoaren miseriardiari esker, ezen eta bederatzi gizon ito egin zitzaizkigun, hauen artean Diego de Estella gure kontablea.

Eta errekuperatzen ari ginenean, arnaska ezinean, beste ekaitz izugarri batek arriskutan ezarri gintuen berriz, untxi osoa mila pusketan txikitu zuelarik, zeinen sototik bortizki tinkatuta ziren mantenamendurako elikagai eta merkantzia guztiak erresakak hondartza eta harkaitz artera bota zituen.

Atertu zuenean sakabanatuak zeuden eta bildu ahal izan genituen baliagarri zitezkeen atarramendu guztiak Pedro de Berak gidatzen zuen *Anunciada* untzian sartu genituen eta hertsiduraren barrena bagindoazelarik berriro beste denborale gaizto batek astindu gintuen, haize kontresta handiekin, oraingotik bai galduko gaituk, pentsatu ere genuela. Gauerdirako hiru untziak eta batelak galduak ginen, eta, Pedorenarekin itsas zabalean besteak lagaz, barneratzen hasi ginen. Ekaitza jada baretua eta zertxobait pasea zen bokaletik igaro ginen, zeinak bazituen tiro baten luzera eta bi harrikaden zabalera, eta hainbeste sufrimendu eta arrisku igarotakoan eskuinaldean ikusi genituen prestatutako karabelak hantxe zabaldu badia handi batean.



Inguratu ginelarik lehorrera jaitsarazi genuen batela eta ikusi genituelarik hogeiren bat *patagon*, bat ekarri zuten untzira, zeinari eman genion jaten eta edaten, eta beste ezdeuskeria batzuen artean batere kasurik egin ez zien urrea eta zilarra erakutsi. Ilunabarrean seinalatu zuen lehorrera joan nahi zuela eta haraxe eraman genuen.

Oroitzen zara nola beste goiz batean agindu nizun dozena bat gizon hartuta joan zintezan Armadako faktorea zegoen lekura, bil zitzaten sakabanaturik gelditu ziren trukerakoak eta mantenamenduko gauzak oro, eta prest eduki zitzaten karabelak harantz abiatzen zirenerako, eta horrela ikusi zenituen patagoen denda xumeak, marra zuriak zituzten behorren larruz eginak, barruan ez zeukatelarik andreak eta haurrak baizik.

Horrela bada, lau egun igaro genituen besteak zeuden lekuraino eta ia gosez, nekez eta hotzez bertan hiltzear izan ginen. Eta hara iritsi nintzen egun berean *Hamaika Mila Neskatil* lurmuturrean arribatu ziren untzi Kapitaina, Martin Balentzia, eta patatxa, eta hau lehorreratu zen ikustera zer zen hura. Jakin zuenean itsasontzia hondatua zela, ez zuen gelditu nahi izan eta beste untziak zeuden lekurantz bideratu ziren.

Agindu nuen, bada, denak leku berera joan zitezten eta gelditzen ziren untziak behar bezala hornitzea. Eta kargatu genituen karabeletan salbatu ahal izan zen guztia, eta kargamendua bere lekuan utzi bezain laster berehala beste tormenta bat altxatu zen. Leku hura utziz hertsiduran barrena nabigatzen hasi ginen. Untzi kapitainak denborale honen

ondorioz baxa batean hondoa jo zuen, eta galduta ibili zen, noraezean. Pedro Berari gizonak asaldatu egin zitzaizkion eta berriro itsas zabalerantz abiatu ziren, eta gauza bera egin zuen Don Rodrigoren eskifaiak.

Hau Loaysa Kapitain Jeneralak kapitain izendatua zen, eta batela utzita errekan, denak irten ginen itsas zabalera Pedro Bera ezik, ez baitzen hau ageri, eta untzia kargaz arindu zuten sototik lehorreratuz, kanpora atereaz nahitaezko kontsideratu ez genituenak. Eta Birjinen edo delako lurmuturretik berezi ginenean eta ikusi Pedro ez zetorrela, Loaysak agindu zuen berriro Santa Cruz ibaira itzultzeko, eta hain gaizki maltratatuak zeuden untziak taxuz eta fulamentuz erreparatzeko.

Halaberki, agindu zion Acuña kapitainari itzul zedin nire untzia galdu zen lekura eta erreka inguruan zegoen batelekoei esateko, nola Santa Cruz ibaiko arruta hartuko genuen eta ahalik eta arinen hara bideratu zedin, bertan hondoa jota zegoen batela errekueratuz. Eta ekaitzaren beldurrez bateletara igo ziren.

Acuña kapitainak erantzun zion, ordea, nola nahi zezakeen Kapitain Jeneralak halako ekaitzarekin itzul zedin berriro galtzeko zorian ezarriz untzia. Jeneralak errepikatu zion behar beharrezkoa zela batela errekueratzea, batere gabe baitzeuden. Acuña berriro, *cómo me quiere mandar donde su merced no querría*, esan zion, alabaina joanarazi zuen eta batela errekueratu zuen azkenean, baina gero nahi zuen arrutatik

nabigatzen joan zen eta jada inoiz gehiago ez genuen ikusi ez bera, ez eta Bera.

Batela handik hogeit hamar egunetara *Santa Cruz* ibaira arribatu zitzaigun. Hantxe, beraz, Kapitain untziak zekartzan gila hondatua hiru brasetan ohol trinkoz konpondu genituen eta gero indartu berunezko txapekin, eta halaberetsu beste untziak ere erreparasatu genituen funtsezko detaile guztietan. Arrantzan ere aritu nintzen nire marinel batzuekin eta untzietarako hogeit hamar upel arrainez beteta prestatu genituen.

*Santa Cruz* ibaiondoan, beraz, batel batekin arrantza handiak egin genituen, eta egunero marea jaisten zenean, lehorrean geratzen ziren mota askotako arrain pila harrapatzen genuen. Islatxo batean egunero agertzen ziren eguzkitara itsas otsoak, eta haraxe hogeita hamasei marinel joan ziren, sei taldetan banatu zirenak, otso bakoitza hiltzeko sei ez zirelarik aski.

Lehorreratu eta hondartza batean oinez zihoazen hainbat eta hegorik gabeko hainbat ahate aurkitu genituen, non ezin baikin ibili; baina otsoak zeuden lekura iritsiz kakoak, borrak, alabardak eta lantzak erabili genituen akabatzeko, baina besteak baino gorago lotan zegoen bat bakarrik hil ahal izan genuen. Otso hura ireki eta esku bat bezain handiak ziren harri lau asko aurkitu genizkion papoan; aurreko laurdenetan idi batek adina haragi bazeukan, baina atzekoetan ia ez zeukan ezer.. Hala bada, hegazti pila makilakadaz hil genuen ezin baitzuten hegan egin. Hauek lumaturik eta gatzunetan ezarriz zortzi upel bete genituen.

Apirilaren erdialdera irlatxo horietako batean su hartu zuen Kapitaina itsasontziaren breazko galdara batek eta marinel batzuek kiskaltzeko arriskutan egon ziren arren, besteek lagundurik itzaltzea lortu zuten.. Uharte horietatik aurreraxeago mareagatik baxu belarditsu batean hondoa jo zuten baina gorakoan flotaraztea lortu zuten, arazo handirik gabe itsasoa ibaia bezain laua zegoelako.

Apirilaren 17an iritsi ziren itsasontziak *La Playa de las sardinas* zeritzanera, baina parage hura txarra iruditu zitzaion Kapitain Jeneralari bertan geratzeko, eta San Jorge deitu lurmuturrera itzuli zen ura eta egurra hartzera. Lurmutur honen parean hiru muino daude, bertan portuak daudela adierazten dutenak, eta hiru uharte txiki.

Lurmutur horretan hil zen Diego de Covarrubias faktore orokorra; eta gau batean bi kanoa patagoiz beteak inguratu zitzaizkigun, euren hizkuntzan oihuka ari zirenak, sutan zekartzaten ilintiak altxatuz mehatxu moduan eta izutzeko keinuak bezala erabiliz. Ez genien erantzun ere egin eta handik laster, itzuli egin ziren.

Paraje hauetako mendiak hain dira garaiak eta pikuak badirudiela zerua ukitzen duteka. Eguzkiak oso gutxitan hausten du hodeien berunezko sare mugikorra, elur bustia eta urdina ari du etengabe egun gehienetan eta gauak hogeitau ordu inguru irauten du. Ur erreka hotz-hotzak jaisten dira jauzika hariztegi aeta arboladi berde eta heze mota ororen artean hondartzaraino eta edateko on dira. Zuhamuetako abar eta egurrak ere oso onak dira su egiteko.

Hertsiduraren bi kostetako lurraldeetan barneratuz ohar zaitezke patagoiak bizi direla, hau da, zango handi batzuek dituzten salbaiak. Hauek suak maiz egiten dituzte eta Magalhãesek Terra dos fogos deitu zuen. Arrantza egiteko paraje aproposak dira, bertan ugariak baitira sardak, bai balearenak bateletatik arponeatzeko, atunarenak, hegaluzeenak, marrazoenak, legatzenak, sardina eta antxoarenak, hala nola muskuilu, ostra eta lanperna multzo haneta olatu diak, eta ihintzak ematen dituen ur tanten antzeko perlak, aljofar deituak dituztenak.

Ohartu ginen ere Atlantiko aldetik eta Hegoaldeko itsasoetatik igotzen ziren mareek hertsiduraren erdialdean elkarrekin topo egiten zutela, orro beldurgarriak eraginez, erresaka eta zurrumbilo ikaragarriak. Eta nola hainbeste isla txiki eta urbide ezberdin dagoen ababor aldetikan ez genuela astirik izan denak ikusi ahal izateko, eta bertako aberastasunez jabetzeko.

**[Hemen bukatzen da Juan Sebastian Elkanoren solasa,  
eta hasten Andres Urdanetaren errelatoaren segida  
Elkanoren heriotzaraino]**

## X

### POST DICTUM

**D**ENA erreparatua eta prest geneukala *Estrecho de Magallanes* deitu hertsiturantz jo genuen eta erdi aldera edo lehenago iritsiak ginenean uharte mordoxka topatu genituen eta parte batzuetan baxekin kontuz ibili behar izan genuen, horrela untzi kapitainak hondoa jo zuela, azkenean lan eta izerdi askorekin lortu genuelarik libratzea hondartza eta harkaitzetatik. Mendi piku eta elurrez jantziak geneuzkan inguruan eta jelez zuriztatu belardiak behe partean. Paraje hotz honetan zenbait marinela eta ofizial hil egin zitzaizkigun, tartean Diego Covarrubias faktorea. Portu onak ere baziren eta azkenean martxoaren 29tik sartu eta hamaika arrisku eta ekaitz sufritu ondoren maiatzaren 26an igaro genuen Loaysa untzi kapitainarekin, Manrike karabelarekin eta Ozes bere unziarekin eta patatxearekin.

Hegoaldeko itsaso zabalera atera ginenean ipar-mendebaldeko arrutari begira ezarri genuen brankaldea, eta egun asko baino lehen beste denborale baten kausaz elkarrengandik berezi beharrean aurkitu ginen, eta ekaitzarekin zerua hain zen beltza eta hodeiak hain ilunak non ez zitekeen ikus deus ezta balezta tiro baten distantzian ere.

Itsasoaren zakarraz etengabe kolpaturik itsasontzia oso hondatuta zegoen, eta alde askotatik ireki zen. Hainbeste ur sartzen hasi zen, non hogeita lau orduz arituta bi bonbekin ozta-ozta atxikatzen ahal zen, eta, eguneroko errazioak laburtu beharrean aurkitu ginen. Hala bada hainbeste lan eta janari eskasiarekin batzuk hil egin ziren.

Denbora ez luze baten ondoren Texeda kontablea eta Rodrigo Bermejo pilotua ere eritasun gaizto batez hil ziren, eta egun batzuetara mila bostehun eta hogeita seiko uztailaren 30ean, ostiralez, Kapitain Jenerala ere hil zen. Loaysa gizaraxoa, tristurak eta flamendarrek schorbuyck eta gaztelaniaz eskorbuto deituak jota.

Erregek prestatutako probisio sekretuaren zigilua horrelako okasiorako hautsi eta irakurri ondoren agindua, jakin genuen Elkano gelditu zela espedizioko buru nagusi, eta Loaysaren iloba kontable jenerala bezala.

Halaberki, untziko kontablea hil zelarik Elkanok Bustamante hautatu zuen kargurako, eta Rodrigo Bermejo kapitainaren ordezkari Martin Perez anaia izendatu, baina halako gaitz handia sorrarazi zuen, ezen jadanik aski nekatua, eta hondatua bere kamaina xumean zihoan Juan Sebastian



Elkano, munduari itzulia ematen lehen itsas kapitaina izan zena, mila bostehun eta hogeita seiko abuztuaren 4an, asteazkenez hil zen eskorbutaz, San Pablo apostoluaren itsasoko bidaietan laguna izan zenaren San Aristarko, egunean.

Egun batzuek lehenago, eri eta sukar malinaz sentitzen baitzen eta akitua erabat bere kamainan, Testamentuaren eta azken borondatearen eskritura zigilaturik uztea erabaki zuen, eta Iñigo Ortes de Perea kontablearen aurrean, adiskide euskaldunez inguratua, zeinek lekuko bezala ondoan sinatu zuten *Victoria* itsasontzian, Hegoaldeko Itsasoan, ekinokziotik gradu batera, mila bostehun eta hogeita seiko uztailaren hogeita seian: Martín Gartzia Karkizanok, Andres Gorostiagak, Hernando Gebarak, Joanes Zabalak, Martin Uriartek eta Andres Aletxek.

Astea amaitu baino lehen azken arnasa eman zuen kapitain jeneralak, Joan Sebastian Elkano Getariako seme ospetsuak, Juan de Areizaga apaizaren eskutik konfesioa, komunioa eta azken oliodurak jaso ondoren, eta Armadako gizon guztiak zutik bakoitza bere lekuan berme kokaturik, azken otoitzarekin eta kainoikadarekin batera ,oihal zuri batean bildua eta oinetan harri borobil handi bat lotua, kareletik bota zuten agurra emanez, oharturik denak ongi ofiziorik gaitzena dela itsasokoa, zeren eta jakina baita dela

*Marinelaren bentura*

*Itsasoan sepultura.*







## AURKIBIDEA

<b>JOAN SEBASTIAN ELKANO, PRIMUS CIRCUMDEDISTI ME.....</b>	<b>5</b>
I IN NOMINE DEI PASTRIS, AMEN.....	7
II DULCE BELLUM INEXPERTIS.....	23
III DOMUS INDICA.....	33
IV PLUS ULTRA.....	47
V TERRAE INCOGNITAE.....	65
VI DE MOLUCCIS INSULIS.....	73
VII PRIMUS CIRCUMDEDISTI ME.....	89
VIII SALVE, REGINA MARIS.....	109
IX DIES IRAE, DIES ILLA.....	121
X POST DICTUM.....	135



*Victoria* itsasontziaren erreplika